

ikus  
pegi

Immigrazioaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de Inmigración

emari ta zabalazazi  
  
Universidad  
del País Vasco Euskal Herriko  
Unibertsitatea

 **EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
BERDINTASUN, JUSTITZIA  
ETA GIZARTI POLITIKETAKO SALA  
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

  
MIGRAZIOARAKO  
EUSKAL  
ITUN SOZIALA  
**PACTO SOCIAL  
VASCO PARA  
LA MIGRACIÓN**

# BAROMETROA

Jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak

# 2023



# AURKIBIDEA



Sarrera	3
Fitxa teknikoa	4
1. Jatorri atzerritarra duten pertsonen etorrera	5
2. Gizarte hartzailean hautemandako ondorioak	25
3. Eskubide eta zerbitzuak	46
4. Bizikidetzaren ereduak eta harremanetarako espazioak	65
5. Kultura-ereduak mantentzea	100
6. Estereotipoak	116
7. Immigrazio-politika	133
8. Tolerantzia-indizea	146
9. Ondorioak	162
Eranskina: galdetegia	165



# Sarrera

Hauxe da 2023ko Barometroa, jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioei eta jarrerei buruzko txostena. Dokumentuak honako ardatz nagusi hauek ditu: etorkinen eta haien bolumenaren pertzepzioa; euskal gizartean hautemandako ondorioak; eskubide eta zerbitzuetarako irispidea; bizikidetzaren ereduak eta harremanetarako espazioak; kultura-ereduak mantentzea; estereotipoak eta begikotasun-maila; immigrazio-politika; eta Tolerantzia-indizea.

2021ean eta 2022an ezohiko testuinguruetan egin ziren barometroak; hain zuzen ere, COVID-19aren pandemian eta Ukrainako errefuxiatuen krisiaren erdian. Egoera horren aurrean, euskal gizarteak modu inklusibo eta toleranteagoan erantzun du, atzerritar jatorriko pertsonenganako jarrerak hobetuz. Hala ere, behin larrialdi soziala desagertuta, 2021a baino lehenagoko balioetara itzuli dira euskal gizartearen jarrera horiek.



# Fitxa teknikoa

- Landa-azterketaren data: 2023ko martxo.
- Egindako inkestak: 600 (Konfiantza-maila = % 95,  $Z = 1,96$  eta errorea = % +/- 4).
- Etxez etxeko inkesta pertsonala 18 urtetik gorakoei.
- “Esleipen proportzional” bidez estratifikatutako laginketa, habitat-tamainaren, adinaren eta sexuaren araberako kuotekin.
- Etxeen hautaketa: ausazko ibilbideen sistema.
- 39 laginketa-puntu 25 udalerritan (4 Araban, 9 Gipuzkoan eta 12 Bizkaian).

# 1



## **Jatorri atzerritarra duten pertsonen etorrera**

- a. Jatorri atzerritarreko pertsonen presentzia arazotzat hautematea
- b. Jatorri atzerritarreko pertsonen bolumena nola hautematen den

## A) JATORRI ATZERRITARREKO PERTSONEN PRESENTZIA ARAZOTZAT HAUTEMATEA






Bizikidetzan eragina duen faktore nagusietako bat honako hau da: immigrazio-fenomenoa arazotzat hautematea. Atal hori aztertzeko, lehenengo eta behin, Euskadin ditugun hiru arazo nagusiak zein diren galdetu eta bat-bateko erantzunak jaso ditugu. Gero, galdera bera egin dugu, baina Eurobarometroan erabiltzen denaren moduko arazo-zerrenda erakutsiz. Azkenik, galdera bera egin dugu berriz, baina galdetutako pertsonen arazo pertsonalak azpimarratuz, eta bat-bateko erantzunak jaso ditugu.

Arazotzat hartzen al da immigrazioa EAEn? 2023ko Barometroak erakutsi digu euskal gizartearen gehiengoarentzat ez dela Euskadiko arazo nagusietako bat atzerritar jatorriko pertsonen etorrera eta presentzia lurraldean. Ez da hala gizarte mailan, % 5,9k bakarrik erantzun baitu bat-batean immigrazioa arazo bat dela, eta % 4,7k erantzuna iradoki zaienean.

Maila pertsonalean ere ez da hala. Izan ere, aurtengo datuak aurreko Barometroan jasotakoekin alderatzen baditugu, migrazioa zuzenean eragiten dien arazotzat hartzen duten euskal herritarren ehunekoia ia erdira jaisten da, 2022an % 3,3 izatetik % 1,7ra pasa baita gaur egun.

## Bilakaera: Immigrazioa Euskadiko arazotzat hautematea (bat-bateko erantzuna, erantzun iradokia eta arazo pertsonala, %), 2007-2023

2023




g1, g2, g27


Azken urtean, immigrazioa arazo pertsonaltzat nahiz arazo iradokitaz hautematea dezente jaitsi da (- 1,6 eta 1,0 puntu, hurrenez hurren), eta mantendu egin da bat-bateko arazotzat hautematea. Beraz, badirudi mantendu egin dela 2008-2014ko krisi ekonomikoa amaitu zenetik dagoen joera, hau da, immigrazioa EAEko arazo garrantzitsutzat ez hartzea.

Generoaren arabera, emaitzek erakutsi dute ikuspuntu estatistikotik ez dagoela diferentziarik, eta, beraz, esan dezakegu gizonen eta emakumeen artean ez dagoela alderik immigrazioa arazotzat hartzeko orduan.

## Euskadin ditugun arazo nagusiak (bat-bateko erantzuna, %)



Erantzuna: immigrazioa



g1


Immigrazioa Euskadiko arazotzat hartzea (bat-bateko erantzuna), lehen aipamenean, % 1,7koa da. Aipamen guztiei begira (hiru arazo nagusiei buruz galdeturik) immigrazioa Euskadiko arazo da herritarren % 5,9rentzat bakarrik.

Arazorik aipatuena ekonomia (% 53,6), langabezia (% 39,1) eta osasun-arlokoak dira (% 24,7).




## Euskadin ditugun arazo nagusiak sexuaren/generoaren arabera (bat-bateko erantzuna, %)

### Gizonak




### Emakumeak



Immigrazioa Euskadin arazotzat hartzea aztertzen badugu (bat-bateko erantzuna), estatistikoki ez dago alde handirik gizonen eta emakumeen artean. Aitzitik, aldeak nabari dira klasearen eta alderdi politikoen arloan; izan ere, hor kezka handiagoa dute gizonek (% 12,9), eta emakumeek, berriz, txikiagoa (% 5,8).

Nolanahi ere, ekonomiaren arloko arazoak eta langabezia dira Euskadiko arazorik larrienak gizonentzat nahiz emakumeentzat (bat-bateko erantzuna), eta ondoren lan-arazoak edo osasuna.


## Euskadin ditugun arazo nagusien bilakaera (bat-bateko erantzuna, %)




Euskal gizartearen ustez, honako hauek dira 2023ko arazo nagusiak: ekonomiarekin lotutako arazoak, langabezia, osasuna eta enpleguarekin zerikusia duten arazoak (prekarietatea, soldata txikiak eta abar).

Eboluzioari dagokionez, agerian dago inflazioak eta prezioen igoerak euskal gizartearen pertzepzioetan izan duten ondorioa. Era berean, emaitzak ikusita, badirudi EAEko biztanleen erantzunetan eragina izan dezaketela landa-lana egiteko unean osasun-arloan gertatu ziren doikuntzekin lotutako albistek.

## Euskadin ditugun arazo nagusiak (erantzun iradokia, %)



Erantzuna: immigrazioa




Immigrazioa arazoa den galdetu diegunean zerrenda iradokitik abiatuta, % 0,9k bakarrik eman dute lehen erantzun gisa. Aipamen guztiei begira (hiru arazo nagusiez galdeturik) immigrazioa Euskadiko arazo bat da % 4,7rentzat bakarrik. Arazorik aipatuena prezioen igoera eta inflazioa (% 64,5), langabezia (% 36,6) eta osasuna eta gizarte segurantza dira (% 35,2).


2022ko Barometroaren aldean, immigrazioa arazo iradokitat hartzea are gehiago murriztu da, % 5,7tik % 4,7ra pasa baita, beste arazo batzuek euskal herritarren buruan eragin handiagoa dutelako, zalantzarik gabe.

## Euskadin ditugun arazo nagusiak sexuaren/generoaren arabera (erantzun iradokia, %)

### Gizonak



### Emakumeak



g2


EAEko arazo gisa erantzun batzuk iradoki ostean, ez dago desberdintasun estatistiko esanguratsurik generoaren arabera, eta emakumeen nahiz gizonen jokaera berdintsua da arlo horretan. Berrito esanda, grafikoetan agertzen diren desberdintasun txikiek ez dute adierazten gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun handirik eta zoriaren ondorio dira.

Arazo nagusiak, gizonentzat nahiz emakumeentzat, prezioen igoera, ekonomiaren egoera, osasuna eta Gizarte Segurantza eta langabezia dira.

### Hiru arazo pertsonal nagusiak (%)



Erantzuna: immigrazioa




Immigrazioa lehen erantzunean arazo pertsonala da % 0,4rentzat, eta aipamen guztiei begira (hiru arazo pertsonal nagusiez galdeturik) euskal herritarren % 1,7rentzat bakarrik da arazo pertsonala. Maila pertsonalean, arazorik aipatuenak dira ekonomiaren arlokoak (% 55,6), osasuna (% 29,3) eta etxebizitza (% 20,4).


Immigrazioa arazo pertsonaltzat hartzea jaitsi egin da berriro ere eta 2022an % 3,3 izatetik % 1,7 izatera pasa da gaur egun.

## Hiru arazo pertsonal nagusiak sexuaren/generoaren arabera (%)

### Gizonak



### Emakumeak




g27

Galdetutako pertsonen arazo pertsonal nagusiei dagokienez, ez dago desberdintasun estatistiko esanguratsurik generoaren arabera: gizonak nahiz emakumeek aipatu dute ekonomiaren arlokoak eta euskal osasun-sistemaren egoerarekin loturikoak direla arazo pertsonal nagusiak.

Migrazioari dagokionez, gizonen % 2,2k eta emakumeen % 1,2k maila pertsonalean eragiten dien arazotzat hartzen dute atzerritarren etorrera.

## Euskadin gaur egun dauden hiru arazo nagusiak




g1, g2, g27

2023an, arazo ekonomikoak, osasun-sistema, langabezia eta etxebizitza dira euskal gizartea gehien kezkatzen duten arazoak.

lazko datuekin alderatuta, nabarmentzekoa da handitu egin dela bai arazo ekonomikoekiko kezka, bai osasunaren egoerarekiko kezka.

## B) JATORRI ATZERRITARREKO PERTSONEN BOLUMENA NOLA HAUTEMATEN DEN



Atal honetan, euskal gizarteak EAEn bizi diren atzerritar jatorriko pertsonen bolumena nola hautematen duen aztertuko da. Gai esanguratsua da; izan ere, migrazioaren fenomenoaren pertzepzioa gairik garrantzitsua ote dagoen jakiteko aukera ematen du, eta horrek eragina izan dezake migrazioaren aldeko edo aurkako jarreretan. Horretarako, euskal gizarteak biztanleria migratzailearen bolumenari buruz zer balorazio egin duen jaso da, bai EAEn erroldatutako atzerritar jatorriko pertsonen kopuru erreala jakin aurretik duen iritzia eta bai kopuru hori jakin ondoren duena. Gainera, galdetu zaie ea datozen bost urteetan beren ustez Euskadira atzerritar jatorriko biztanleek etortzen jarraituko ote duten, eta zein diren iritsiko direnen herritartasun nagusiak.


EAEn bizi diren atzerritar jatorriko pertsonen bolumenari buruzko pertzepzioa ez dator bat errealitatearekin eta benetan dena baino handiagoa dela uste da. Pertzepzioa % 15 eta % 20 artean dago, aurreko urteetan bezala, atzerritar jatorriko pertsonak gehiegi izatearen pertzepzioa jaitsi egiten da benetako datua ezagutzeko, 4 puntu igo bada ere EAera iritsi diren etorkinak gehiegi direla pentsatzen jarraitzen dutenen kopurua.

Etorkizunari begira, euskal herritarren hiru laurdenaren ustez, datozen bost urteetan ugari egingo dira atzerritar jatorriko pertsonak Euskadin, eta gehienak magrebtarrak, Saharaz hegoaldeko Afrikakoak eta Latinoamerikakoak izango direla uste dute.

\*Berriki, Estatistikako Institutu Nazionalak aldatu egin du biztanleria egoiliarren proportzioa kalkulatzeko metodologia. Aurrerantzean, udal-erroldatik ateratako datuak erabili beharrean, argitaratutako kopuruak zenbatespen estatistiko baten emaitza izango dira.



## Atzerritar jatorriko biztanleriaren bolumena nola hautematen den, atzerriko biztanle-kopuruaren datu ofiziala jakinarazi aurretik (%), 2004, 2007-2023




EAEko hamar biztanletik lauk uste dute atzerritarren kopurua handiegia edo dezente handia dela (% 39,3). Pertzepzio horrek gora egin du iazko datuekin alderatuta, eta 2021eko zifren antzekoa da.

2012-2014 artean ugaritu egin ziren atzerritar jatorriko biztanleak EAEn gehiegi edo asko samar zirela uste zutenak (2012an “egokia” kategoria sartu genuen). Nolanahi ere, kopuru hori jaisten joan da 2015etik aurrera eta % 10,2 izan zen 2022an, serie osoko datu txikiena. 2023an kopuru horrek pixka bat gora egin du berriz ere eta % 13,7ra iritsi da.

Jarrerak generoaren arabera aztertzen baditugu, ikusiko dugu estatistikoki ez dagoela alde esanguratsurik gizonen eta emakumeen artean.

## Euskadin erroldatutako atzerriko biztanleen ustezko kopurua eta kopuru erreala (%), 2007-2023



g4


2023ko Barometroaren emaitzek erakusten dute euskal gizarteak neurritz kanpo hautematen duela EAEn bizi diren atzerritar jatorriko pertsonen bolumena. Hautemate horrek ia bikoiztu egiten du estatistika ofizialetan erroldatutako eta erregistratutako jatorri atzerritarreko pertsonen kopurua.

2022 eta 2023 artean, Euskadin erroldatutako atzerritar jatorriko biztanleria % 12,4raino hazi da, baina euskal herritarren pertzepzioa % 21,4koa da.

Generoaren arabera, aurreko urteetan bezala, atzerritar jatorriko biztanle gehiago daudela uste dute emakumeek (% 23,9) gizonek baino (% 19,1).

\*Berriki, Estatistikako Institutu Nazionalak aldatu egin du biztanleria egoiliarren proportzioa kalkulatzeko metodologia. Aurrerantzean, udal-erroldatik ateratako datuak erabili beharrean, argitaratutako kopuruak zenbatespen estatistiko baten emaitza izango dira.

## Atzerritar jatorriko biztanleriaren bolumena nola hautematen den, atzerriko biztanle-kopuruaren datu ofiziala jakinarazi ondoren (%), 2004, 2007-2023




g5

Atzerriko biztanle-kopuruaren datu errealak jakinarazi ondoren, bolumenaren pertzepzioak aldatu egin da: herritar gutxiagok uste dute kopuru hori handiegia edo nahiko handia dela (% 30,8), eta gehiagok pentsatzen dute EAEn bizi den atzerritar jatorriko biztanleen kopuru errealak egokia dela (% 57,8).

2012-2014 artean hazi egin zen Euskadin atzerritar jatorriko biztanleen kopurua handiegia edo nahiko handia dela uste dutenen ehunekoa. Hala ere, kopuru horrek behera egin zuen lehenengo 2015 eta 2016 urteen artean, eta baita 2018. urtetik aurrera ere. Badirudi joera hori alderantzikatu egin dela azken urtean; izan ere, berriz ere handitu egin da atzerritarren kopurua handia dela uste duten biztanleen ehunekoa.

Generoari erreparatuta, zenbakien artean aldeak dauden arren, ezin dugu esan estatistikan desberdintasun esanguratsuak daudenik gizonen eta emakumeen artean: atzerritar jatorriko biztanleriaren bolumena hautemateko modua ez da aldatu.


## Hurrengo bost urteetako egoerari begira, immigrazioak EAEn, zure ustez...? (%), 2017-2023



Gaur egun, hamar pertsonatik zazpik uste dute Euskadin immigrazioa hazi egingo dela hurrengo bost urteetan (% 73), eta ehuneko hori jaitsi egin da aurreko urtearekin alderatzen badugu (-12,7 puntu). Bestalde, handitu egin da kopuru hori berdintzeko dela uste dutenen ehunekoa (+8,2 puntu), bai eta iritzi zehatzik eman ez dutenen ehunekoa ere (+4,5 puntu).

Oro har, datu horiek erakusten dutenez, euskal gizartea gero eta ohituago dago jatorri atzeritarra duten biztanleak ugaritzearekin. Hala eta guztiz ere, migrazioak gora egiten jarraituko duela uste duten pertsonen ehunekoak behera egiteak zerikusia izan dezake Ukrainako krisiaren pertzepzio sozialaren aldaketarekin eta asilo-eskaeren egonkortzearekin.


## Hurrengo bost urteetako egoerari begira, immigrazioak EAEn, zure ustez..? (%), sexuaren/generoaren arabera



Generoaren arabera, zenbakietan alde txiki batzuk badaude ere, desberdintasun horiek ez dira nahikoa handiak estatistikaren ikuspuntutik, eta ez dago esaterik desberdintasun esanguratsuak daudenik gizonen eta emakumeen artean.

Emakumeek zein gizonek ulertzen dute immigrazioa egiturazko elementua dela gaur egungo gizartean, eta atzerritar jatorriko pertsonak iristen jarraituko dutela datozen urteetan.

## Demagun, etorkizunean ere etorkinek EAera etortzen jarraitzen dutela. Zure ustez, nongoa izango da etorkin multzo handiena? Eta bigarren etorkin multzo handiena? Eta hirugarrena? (%)




Euskadira datozen etorkinak ugartuz joanez gero nongoak izango diren galdeturik, gehienek magrebtarrak aipatu dituzte (% 78,8). Bigarrenik, halako tarte batera, Saharaz hegoaldeko Afrikakoak (% 62,5) eta Latinoamerikakoak (% 62,3) ageri dira.

Dena dela, euskal gizartearen pertzepzioa ez dator bat datu objektiboen errealitatearekin; izan ere, datu horien arabera, azken urteotan EAera etortzen ari diren atzerritar jatorriko biztanle gehienak latinoamerikarrak dira.

Oso gutxik uste dute jendea etorriko denik Ozeaniatik (% 0,2), Estatu Batuetatik eta Kanadatik (% 0,3), edo Europar Batasuneko 24etatik (% 4).

## Euskal herritarren ustez gehien etorriko direnen jatorri nagusien eboluzioa (erantzunak guztira, %)




Datu horien eboluzioari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu euskal herritarrek, horri buruz galdetzen hasi ginenetik, aldiro hauteman dutela Magreb, Saharaz hegoaldeko Afrika eta Latinoamerika direla migratutako biztanleen sorteri nagusietako hiru.

Hala ere, beste jatorri batzuen kasuan, hala nola Ekialdeko Europaren kasuan, ikusi dugu euskal biztanleek duten pertzepzioa oso lotuta dagoela testuinguru soziopolitikoarekin eta nazioartekoarekin. Halatan, Ukrainako krisiarekin batera, eremu horretako fluxuak areagotuko zirela uste zutenen ehunekoa handitu egin zen, eta aurten, berriz, murriztu egin da, gatazka kronifikatu eta jatorri horretako pertsonen etorrera egonkortu denean.


g24

**Demagun, etorkizunean ere etorkinek EAera etortzen jarraitzen dutela. Zure ustez, nongoa izango da etorkin multzo handiena? Eta bigarren etorkin multzo handiena? Eta hirugarrena? (%), sexuaren/generoaren arabera**

Gizonak



Emakumeak



Generoari erreparatuta, zenbakien artean alde txiki batzuk badaude ere, ezin dugu esan estatistikan desberdintasun esanguratsuak daudenik gizonen eta emakumeen artean: etorkizunean pentsatuz, antzeko pertzepzioa dute EAera etorriko direla espero duten atzerriko pertsonen jatorriari buruz.

Ordena desberdinean bada ere, emakumeen nahiz gizonen ustez gehien haziko diren jatorriak berberak dira: Magreb, Saharaz hegoaldeko Afrika eta Latinoamerika.

g24




# 2



## **Gizarte hartzailean hautemandako ondorioak**

- a. Ekonomian
- b. Hizkuntza- eta identitate-gaietan
- c. Ongizatean

## ONDORIOAK EUSKAL GIZARTEAN



Atal honetan, euskal gizartean eragin positiboa zein negatiboa izan dezaketen immigrazioaren alderdiak aztertuko ditugu. Horretarako, inkestatutako pertsonen galdetu diegu zer ondorio dituen immigrazioak ekonomian, identitatean eta hizkuntzan, eta ongizatean.

Ekonomiari dagokionez, ondorio positiboak (ekonomiak hobera egin du bertako biztanleek nahi ez dituzten lanpostuak edo langileak behar dituzten sektoreak bete direlako) zein negatiboak (soldatek behera eta langabeziak gora egin dute) buruz galdetu diegu. Identitateari eta hizkuntzari dagokienez, herritarrei galdetu diegu zer eragin izan

dezakeen atzerriko immigrazioak euskal abertzaletasunaren helburuetan, euskal identitatean, eta euskararen garapenean eta erabileran. Arlo sozialean, berriz, galdetu diegu immigrazioak zer eragin positibo edo negatibo dituen euskal gizartearen ongizatean.

Berritasun gisa, aurreko lehen aldiz, hainbat galdera egin ditugu jakiteko euskal gizarteak zein pertzepzio duen atzerritar jatorriko emakumeei buruz, haien egoerari buruz eta egiten duten ekarpenari buruz, bai ekonomia-mailan, bai gizarte-mailan.

## ONDORIOAK EUSKAL GIZARTEAN

EKONOMIA	IDENTITATEA ETA HIZKUNTZA	ONGIZATEA
Ondorio positiboak Ondorio negatiboak Atzerritar jatorriko emakumeak	Euskal identitatea Euskal abertzaletasunaren helburuak Euskararen garapena Euskararen erabilera	Ondorio positiboen/negatiboen pertzepzioa

Immigrazioak ekonomian dituen ondorioei dagokienez, azken urteetako joerari eutsi zaio. Hala, ikusi dugu, euskal herritarrek ekonomia- eta lan-arloetan adierazitako kezka gorabehera, hobetzen jarraitzen dutela immigrazioarekin eta lan-merkatuarekin lotutako jarrerak.

Identitatean eta hizkuntzan dituen ondorioei dagokienez, datuek erakutsi dute EAEn, euskal gizartean, identitatei eta euskararen erabilerari buruzko eztabaidak ez duela inolako zerikusirik immigrazioaren kontuarekin. Bereizketa horri esker, ez dira garrantzi sozialeko pertzepzio negatiboak sortzen herritarrengan.


Biztanleria immigranteak gure ongizate-estatuan dituen ondorio positiboak edo negatiboak buruz euskal gizarteak egiten duen balorazioari dagokionez, neutro edo anbibalente samarra da. Hala ere, ikusi dugu hobetzen ari dela etorkinek egiten duten ekarpenaren inguruko ikuspegia, eta serie osoko datu positiboena lortu dugu.

Atzerritar jatorriko emakumei dagokienez, euskal gizarteak oso positibotzat jotzen du haien ekarpena, bai ekonomiari dagokionez, bai ongizateari dagokionez. Hala ere, badirudi aitoren hori ez datorrela bat lan-baldintza egokien pertzepzioarekin.


## A) EKONOMIAN

Ados    Ez ados, ez kontra    Kontra    Ed/Ee

### Ondorio positiboak (%)



### Ondorio negatiboak (%)




g6a, g6c, g6e, g21j

Oro har, euskal gizartea ohartzen da atzerritar jatorriko pertsonak lurraldera iristeak dakartzan onura ekonomikoez eta lan-funtzionaltasunaz.

Esan liteke, beraz, euskal herritarrek ez dituztela langabeziak, enplegua urritzeak edo soldatak jaisteak dakartzaten arazo ekonomikoen “erantzule” egiten etorkinak; alderantziz, egiturazko prozesuak dira horiek.


## A) EKONOMIAN

### Ondorio positiboak (%)



2004 eta 2014 artean, negatiboa izan zen EAEko biztanleek immigrazioari eta hark ekonomian duen eraginari buruz zuten iritzia. Hala ere, urte horretatik aurrera, ikuspegi hori aldatu egin da eta lehen baino ikuspegi positiboagoa du euskal gizarteak, aitortzen baitu immigrazioari esker ekonomiak hobeto funtzionatzen duela, etorkinek bertakoek bete nahi ez dituzten lanpostuak betetzen dituztelako. Horrez gain, aitortzen dute etorkinak behar ditugula gure ekonomiaren sektore batzuetan lan egiteko.

### Ondorio negatiboak (%)




Immigranteak etortzearen ondorio negatiboei (hala nola, langabezia handitzea edo soldatak jaisteak) eta haien bilakaerari dagokienez, esan daiteke gero eta gutxiago direla binomio negatibo hori onartzen dutenak, bereziki 2013-14tik aurrera.

Horren harira, azken urtean behera egin du bai immigrazioaren ondorioz soldatak jaitsi direla uste ez duten biztanleen ehunekoak (-8,0 puntu), bai immigrazioak langabeziari eragiten diola uste ez dutenen kopuruak (-8,1).

## ONDORIO POSITIBOAK. Etorkinei esker, ekonomiak hobera egiten du, bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak betetzen dituztelako (%)

2023




Gizonak

71,9

Emakumeak

70,8




g6e

2008ko krisi ekonomikoaren ondorioz, higatu egin zen immigrazioaren ikuspegi funtzional eta utilitarista. Diskurtso horren arabera, etorkinei esker hobeto funtzionatzen du ekonomiak, bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak betetzen dituztelako. Hala bada, aurretik ere jada joera hori izan arren, krisi garaian eta enplegu eskasiaren testuinguruan, nabarmen jaitsi zen baieztapen horrekin bat zetozen pertsonen ehunekoa, 2004an % 63 izatetik 2014an % 32,8 izatera pasa baitzen. 2015etik aurrera ikuspegi hori berreskuratu da, azken urtean beharpen txiki bat izan badu ere (% 71,4).

Datuak generoaren arabera aztertzen baditugu, estatistiketan ez dago desberdintasun esanguratsurik. Immigrazioak lanaren munduan duen eraginari dagokionez, berdintsua da gizonen nahiz emakumeen iritzia.

## ONDORIO POSITIBOAK. Etorkinak behar ditugu gure ekonomiaren sektore batzuetan lan egiteko (%)

2023




Gizonak

70,4

Emakumeak

69,1




g6c

Aurreko diapositibako datuekin gertatu bezala, immigranteak lan-merkatura ondo egokitzen direla uste duten pertsonen ehunekoa nabarmen murriztu zen krisialdi ekonomikoaren testuinguruan, 2014an % 30,4ra jaitsi baitzen. Dena den, adierazle ekonomikoak hobetzeak berekin ekarri zuen, berriz ere, immigrazioaren ideia funtzional eta utilitaristagoa. Era berean, azken urte honetan, murriztu egin da ekonomiaren sektore jakin batzuetan lan egiteko etorkinak behar direla uste duten pertsonen ehunekoa, eta 2021ko mailetara itzuli da.

Generoaren arabera, estatistiketan ez dago desberdintasun esanguratsurik eta, beraz, gizonen eta emakumeen artean diferentziarik ez dagoela esan liteke.

## ONDORIO NEGATIBOAK. Atzerriko etorkinen presentziak Euskadin langabezia handiagoa izatea dakar (%)

2023




Gizonak

Emakumeak

15,9

17,7



g21j


Immigranteak etortzeak langabezia-mailetan duen eraginari dagokionez, ideia hori sendo sustraitu bazen ere atzeraldi ekonomikoaren urteetan, indarra galdu du urteen joanean eta euskal herritarren % 16,9 dator ideia horrekin bat. Bestalde, herritarren % 68,9k ez du etorkinen presentzia langabezia handitzearekin lotzen. Kopuru horrek pixka bat behera egin du 2022ri dagokionez, baina, hala ere, 2021eko kopuruen (% 58,7) gainetik dago.

Generoaren arabera, ezin dugu esan estatistiketan diferentzia esanguratsurik dagoenik gizonen eta emakumeen artean, antzeko pertzepzioa baitute.



## ONDORIO NEGATIBOAK. Jendea bizitzera eta lan egitera etortzen denez, oro har, soldaten zenbatekoak behera egiten du (%)

2023




Gizonak

13,7

Emakumeak

16,2




g6a

Euskal herritar gehienek ez dute uste etorkinek eragina dutenik soldatetan, hala uste dute hamar herritarretik zazpik. Kopuru horrek gora egin zuen Ukrainako gerrarekin batera eta 2023an pixka bat jaitsi da, % 73ra, hain zuzen ere.

Generoaren arabera, ezin dugu esan estatistiketan diferentzia esanguratsurik dagoenik gizonen eta emakumeen artean, antzeko pertzepzioa baitute immigrazioak soldaten jaitsieran duen eraginari dagokionez, eta baztertu egiten dute soldaten jaitsieran eragina duenik.

## Emakume etorkinak... (%)




Arreta emakume migratzaileengan jartzen badugu, ikusiko dugu, oro har, euskal herritarrek positiboki baloratzen dutela gizarteari egiten dioten ekarpena.

Ikuspegi ekonomikotik begiratuta, eta ikuspegi utilitaristago horren ildotik, euskal herritarrek aitortzen dute emakume migratzaileek garrantzi handia dutela zainketa-lanetan (% 89,9) eta bestela beteko ez liratekeen lanpostuak betetzeko (% 82,3).

Funtsean, euskal herritarrak bat datoz esatean atzeritar jatorriko emakumeek ekarpen sozial (% 75,7) eta ekonomiko oso handia (% 70,5) egiten dutela, eta, besteak beste, familia eta lana hobe uztartzea ahalbidetzen dutela (% 74,9).

Hala ere, ekarpen handia egiten dutela ikusi arren, euskal gizarteak uste du lan-baldintza okerragoak dituztela (% 78,4), batez ere emakume musulmanen artean (% 74,6). Euskal herritarren % 72,2k uste du, gainera, indarkeria matxista gehiago jasaten dutela.

## ATZERRITAR JATORRIKO EMAKUMEAK. Egoera eta lan-baldintzak




Emakume migratzaileen egoera ekonomiko eta laboralari buruzko pertzepzioetan sakonduz, EAEko emakumeek askoz ere zalantza handiagoak dituzte (% 8,2), ez daude ados ez kontra, emakume atzerritarrek zaintza-lanetan duten zeregina baloratzerakoan.


Proposatutako gainerako kasuetan, gizonen eta emakumeen jarrera antzekoa da.

## ATZERRITAR JATORRIKO EMAKUMEAK. Egoera eta ekarpen soziala

Indarkeria matxista handiagoa jasaten dute




Ekonomiari laguntzen diote




- Ados
- Ez ados, ez kontra
- Kontra
- Ed/Ee

Kontziliazioari laguntzen diote




Gizarteari laguntzen diote



Atzerritar jatorriko emakume etorkinen egoerari eta gizarteari egiten dioten ekarpenari dagokienez, ezin dugu esan gizonen eta emakumeen artean alde esanguratsurik dagoenik.

## B) HIZKUNTZA- ETA IDENTITATE-GAIETAN




g25

EAEEn, immigrazioaren fenomenoari buruzko eztabaida soziala ez da erlazionatzen identitateei eta euskararen erabilerari buruzko eztabaida soziopolitikoarekin. Bereizketa horri esker, oro har, herritarrengan ez dira sortzen garrantzi sozialeko pertzepzio negatiboak immigrazioaren eta identitateen artean.

Euskal herritarren gehiengo handi batek (% 75,6) ez du uste atzerritar jatorriko biztanleria etortzeak euskal identitatea galtzen laguntzen duenik, eta ez du uste euskal abertzaletasunaren helburuak geldiaraziko dituenik (% 70,9).

Hizkuntzari dagokionez, % 70,2k ez du uste immigrazioak euskararen garapena oztopa dezakeenik, eta % 71k ez du uste eragina izan dezakeenik euskararen erabilera murriztean eta garatzean euskara nagusi den zonaldeetan.

## B) HIZKUNTZA- ETA IDENTITATE-GAIETAN




- Abertzaletasunaren helburuak geldiaraziko ditu
- Euskal nortasuna galtzea ekarriko du
- Euskararen garapena geldiaraziko du
- Gaur egun euskara nagusi den eremuetan euskaraz gutxiago hitz egingo da

Hizkuntza- eta identitate-gaiei loturiko pertzepzio negatiboak ez dira esanguratsuak.

Hala, euskal gizarteak 2020an zuen ikuspegira atzera eramaten duten igoera batzuk gorabehera, oro har, behin ere ez da egon gai honetan jarrera negatiboak dituen pertsona kopuru handirik.

## Etorkin atzerritarrak iristeak euskararen garapena geldiaraziko du (%)

2023




Gizonak

Emakumeak

15,7

13,2




g25a

Baieztapen horietako bakoitzean sakonduz, euskal gizarteak ez du uste atzeritar jatorriko etorkinek euskararen garapena oztopa dezaketarik. Hala uste dutenen ehunekoa goian egon da azken urte hauetan, 10 lagunetik zazpi inguru ez baitaude baieztapen horrekin ados.

Generoaren arabera, estatistiketan ez dago desberdintasun esanguratsurik eta, beraz, gizonen eta emakumeen artean diferentziarik ez dagoela esan liteke immigrazioak euskararen garapenean duen eragina baloratzeko orduan.

## Gaur egun euskara nagusi den eremuetan euskaraz gutxiago hitz egingo da (%)

2023




Gizonak

15,9

Emakumeak

15,1



g25b


Beste horrenbeste gertatzen da gaur egun euskara nagusi den Euskadiko eremuetan atzerriko etorkinek izan dezaketen eraginarekin: oso gutxi dira tesi horren aldekoak (% 15,5), eta ehunekoak nahiko berdin eutsi dio, gorabehera txikiekin bada ere, 2004tik gaur egunera arte.

Generoaren arabera, estatistiketan ez dago desberdintasun esanguratsurik eta, beraz, gizonen eta emakumeen artean diferentziarik ez dagoela esan liteke.



## Geldiarazi egingo ditu abertzaletasunaren helburuak (%)

2023




Gizonak

Emakumeak

10,9

10,6




g25d

Euskal herritar gehienek ez dute uste immigrazioak eragina izan dezakeenik euskal nortasunaren galeran (% 70,9). Pertzepzio hori EAEko biztanleria osoaren % 70-80 inguruan finkatu da azken urteotan. Horren harira, 2014tik aurrera oso pertsona gutxik uste dute lotura egon daitekeela atzeritar jatorriko pertsonen etorreraren eta euskal nazionalismoaren helburuen atzerakadaren artean, % 10,7k 2023an. Datu hori, aurreko urtearekin alderatuta handitu bada ere, pandemiaren eta Ukrainako krisiaren aurretik ikusitako joerara itzuli da.

Generoaren arabera, hemen ere ez dugu desberdintasunik ikusi gizonen eta emakumeen artean. Bi generoek antzera hautematen dute atzeritar jatorriko pertsonen etorrerak euskal nazionalismoaren helburuetan izan dezakeen eragina.

## Euskal nortasuna galtzea ekarriko du (%)

2023




Gizonak

10,1

Emakumeak

11,2



g25c


Euskal herritar gehienek ez dute uste immigrazioak euskal identitatearen galerari eragin diezaiokeenik (% 75,6). Izan ere, biztanleriaren % 10,6 baino ez dator bat baieztapen horrekin.

Ehunekoetan alde txikiak egon arren, kasu horretan ere ez dago estatistikoki esanguratsuak diren alderik gizonen eta emakumeen artean.

## C) ONGIZATEAN

### Immigrazioak euskal gizartean dituen ondorio positibo edo negatiboen pertzepzioa

0 puntutik (negatiboak) 10 puntura (positiboak)



Etorkinek euskal gizartean duten ekarpen orokorrari buruzko ikuspegia apur bat baikorragoa da. Hala, badirudi azken urteotan gero eta normalago ari garela onartzen atzerritarren immigrazioa, beldur txikiagoz eta konfiantza handiagoz.


Izan ere, 2015az geroztik, eta adierazle makroekonomikoen hobekuntzarekin bat, joera gorakorra hauteman da, eta 2014tik aurrera puntu eta erdi baino gehiago hobetu da hautemate globala. Gainera, pertsona gehiagok uste dute eragin positiboak negatiboak baino gehiago direla.

Horri dagokionez, aipatzekoa da, azken urteetako gertakizunak gorabehera (pandemia, Ukrainako gerra eta abar), horrek ez duela eragin kaltegarririk izan euskal herritarren pertzepzioan. Aitzitik, balorazioa hobetu egin da azken urteotan.

Generoaren arabera aztertzen badugu, ikusiko dugu estatistikoki hemen ere ez dagoela alde esanguratsurik gizonen eta emakumeen artean.

## Atzerritar jatorriko emakumeen etorreraren ondorio positiboak edo negatiboak buruzko pertzepzioa

0 puntutik (negatiboak) 10 puntura (positiboak)





Otik 10era bitarteko eskalan, 0 erabat negatiboa eta 10 erabat positiboa izanik, euskal herritarrek pertzepzio argi eta garbi positiboa dute atzerritar jatorriko emakumeen etorreraren ondorioei buruz (9,72 puntu).

Generoaren arabera, kopuruen artean alde txikiak izan arren, estatistikaren ikuspegitik ez dira behar bezain handiak, eta gizonak eta emakumeak balorazio hori partekatzen dute eta emakume horiek ongizate kolektiboan duten rola aitortzen dute.

g45

## Europako populazioaren zahartzeak eragindako arazoak konpon ditzakete Europara datozen etorkinek (%)

2023



g21k

Pixkanaka, euskal gizartean gero eta onartuago dago atzeritar jatorriko pertsonak etortzeak eragin positiboa izan dezakeela Europako (eta Euskadiko) demografia zahartuan. Hala, euskal gizarteko % 76ren ustez, immigrazioak eragin positiboa izan dezake Euskadiko eta Europako biztanleen hazkundera, serie osoko daturik handiena izanik hori, eta % 8,2k bakarrik irizten dio kontrakoa.

Zenbakietan alde txiki batzuk badaude ere, desberdintasun horiek ez dira nahikoa handiak estatistikaren ikuspuntutik, eta ez dago esaterik desberdintasun esanguratsuak daudenik gizonen eta emakumeen artean.

# 3



**Eskubide eta zerbitzuak**

## ESKUBIDE ETA ZERBITZUAK



Euskal gizarteak uste du atzerritar jatorriko pertsonen bertako biztanleriaren eskubide eta zerbitzu berberak izan behar dituztela. Oro har, euskal gizarteak jarraitzen du pentsatzen EAEn bizi diren atzerritar jatorriko pertsonen, eskubideak eta zerbitzuak izateko, legezko administrazio-egoeran egon behar dutela. Alabaina, herritarren ehuneko handi batek uste du hezkuntza eta osasuna eskubide unibertsalak direla, eta, beraz, den-denok izan behar ditugula, edozein delarik ere administrazio-egoera.

Immigranteek eskubide eta zerbitzuetara duten sarbidea –sarbide unibertsala zein legezko administrazio-egoeran daudenentzako– eta azken urteotan herritarrek horri buruz emandako erantzunen bilakaera dinamika sozial eta makroekonomikoekin bat etorritik garatu da. Hori horrela, krisialdi ekonomikoak gogorren jo zuen urteetan, hazi egin zen eskubideak eta zerbitzuak izatea legezko administrazio-egoeran egotearekin lotzen zutenen



ehunekoa. Azkenaldian, apur bat hazi da eskubideak unibertsaltzat hartzea (adibidez, osasun-arreta edo hezkuntza, bai eta laguntza juridikoa ere).

Horrekin batera, heziketarekin loturiko zerbitzuak eskuratzeko aukera unibertsala izatearen pertzepzioa ere handitu egin da, hala nola euskarako eta gaztelaniako eskolak, lanbide-heziketako ikastaroak eta jatorrizko hizkuntzako eskolak jasotzeko aukerarena.

Nolanahi ere, euskal gizartearen % 15-25ek iritzi murriztaileagoa du atzerritar jatorriko pertsonen eskubide eta zerbitzuetarako sarbidea izateari dagokionez, eta, oro har, administrazio-egoera erregularrean dauden pertsonetara mugatzen dituzte.

## Lehentasuna eskubideei heltzerakoan (%)

2023



g19

Gaur egun, hamar pertsonatik ia zazpiren ustez (% 68,5), pertsona guztiok, edozein jatorri dutela ere, eskubide eta betebeharrak eduki behar dituzte, hala nola osasun-arreta, gizarte-laguntzak edo babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko aukera.


Planteamendu horren aurrean, % 29,2ren ustez, eskubide horiek eskuratzeko orduan lehentasuna izan behar du bertako jendeak, atzerriko immigranteen aurretik, eta azken urteetako baino kopuru nabarmen handiagoa da hori. Azken batean, datuek erakutsi dute pandemiaren aurreko joerak jarraitzen duela.

Generoaren arabera, emaitzek erakutsi dute ikuspuntu estatistikotik ez dagoela diferentziarik, eta, beraz, esan dezakegu gizonen eta emakumeen artean ez dagoela alderik eskubide horiek izateko aukera baloratzeko orduan.



## Etorkinek ez lukete diru-sarrerak bermatzeko errenta jaso behar, eta soilik bertakoentzat izan beharko luke (%)

2023




Gizonak

68,4

Emakumeak

64,2

g6n




Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) eskuratzeko aukerari dagokionez, Euskadiko biztanle gehienek (% 66,3) ulertzen dute babes sozialerako tresna gisa duen balioa, eta, ondorioz, uko egiten diote soilik bertakoentzako laguntza izan beharko lukeela dioen ideia.

Horrez gain, kopuru horiek aurreko urteetakoekin alderatzen baditugu, urteek aurrera egin ahala pertsona gehiagok egin dute bat ikuspegi horrekin, baina 2023an, aurreko kasuan bezala, 2020ko kopuruetara itzuli gara.

Generoaren arabera, emaitzek adierazten dute estatistikaren ikuspegitik ez dagoela desberdintasun nabarmenik.

## Eskubideei heltzea eta egoera administratiboa (%)




g17

Atzerritar jatorriko pertsonak zenbait eskubide eta zerbitzu eskuratzearekin lotuta, bertako biztanleriaren iritzia desberdina da eskubide- edo zerbitzu-motaren arabera.

Euskadiko biztanle gehienek eskubide unibertsaltzat jotzen dituzte osasuna (% 84,5) eta hezkuntza (% 81,6), eta, neurri txikiagoan, laguntza juridikoa (% 67,7). Ondorioz, eskubide horietarako sarbideak irekia izan beharko luke etorkin guztientzat, euren egoera erregularra den ala ez kontuan hartu gabe.

Hala ere, beste eskubide batzuez mintzatzen garenean (laguntza sozialak, BOE edo bozkatzeko eskubidea), euskal herritar gehienak horiek murriztearen alde daude, uste baitute soilik administrazio-egoera erregularrean daudenek erabili ditzaketela.

## Eskubide eta zerbitzuak izatea (“guztiak” aukeraren %)




g17

2004 eta 2018 artean, euskal herritarren iritzian eragina izan zuen krisi ekonomikoak, bai eta estatu-mailan agintean zeuden politikarien jarrera murriztaile batzuek ere. Hala, 2012an jaitsi egin zen eskubideak (adibidez, osasuna eta hezkuntza) denen eskura egotearen alde zeuden pertsonen ehunekoak.

Pandemiaren eta Ukrainako gerraren testuinguruan, hobetu egin zen euskal herritarrek immigrazioari buruz zuten pertzepzioa, eta, horren ondorioz, handitu egin zen zerbitzu horiek unibertsaltzat hartzen zituztenen ehunekoak. Alde horretatik, eta nahiz eta aurten ehunekoak handia izaten jarraitzen duen, ehuneko hori pixka bat murriztu egin da 2022ren aldean.

## Osasun-zerbitzua (%)

2023




- Ed/Ee
- Batek ere ez
- Erregularizatuek
- Guztiek

Gizonak

84,7

Emakumeak

84,3




g17b

Euskadiko biztanle gehienek (% 84,5) eskubide unibertsaltzat jotzen dute osasuna. Eskubide horrekin lotutako ikuspegiak joera gorakorra izan du orokorrean, eta pandemiaren garaian bereziki, pertsona guztiek osasunerako sarbidea izan behar dutela uste duten euskal herritarren ehunekoak 27,8 puntu gora egin baitzuen orduan. 2022ko kopuruekin alderatuta, pixka bat murriztu egin da datu hori (-4,2 puntu), baina hori da herritarren gehiengoaren iritzia.

Generoaren arabera, gizonak eta emakumeek antzeko pertzepzioa dute osasun-zerbitzua jasotzeko aukerari buruz, eta ez dago desberdintasun estatistiko esanguratsurik bien artean.

## Hezkuntza (%)

2023




Gizonak

81,1

Emakumeak

82,1




g17a

2004. urtetik 2022. urtera, zenbait fase bereizten dira hezkuntzarako sarbidea izateari dagokionez: aurrenekoan, goraldi ekonomikoaren etapari lotutakoan, hezkuntza eskubide unibertsaltzat hartzen zutenen ehunekoak gora egin zuen, 2011ra arte. 2012an behera egin zuen eskubide hori denek izan behar dutela uste zutenen ehunekoak, eta hezkuntza jasotzeko aukera eta legezko administrazio-egoera lotzen dituztenen ehunekoak, berriz, gora egin zuen. Hezkuntza eskubide unibertsaltzat hartzen zutenen ehunekoak gora egin zueneko aldiaren ondoren, 2019an, pertzepzio horrek behera egin zuen. Hala ere, pandemiaren garaian ehunekoak gora egin zuen berriro, eta 2023an pixka bat jaitsi egin da, % 81,6ra, hain zuzen ere.

Estatistikaren ikuspegitik, generoaren arabera ez da alde esanguratsurik hauteman.

## Zerbitzu juridikoa (%)

2023




Gizonak

68,8

Emakumeak

66,7





g17g

Hamar pertsonatik ia zazpiren ustez (% 67,7) zerbitzu juridikoak etorri guztien eskura egon behar luke, dauden egoera administratiboan daudela. Atzera begira, dauden egoeran daudela, pertsona guztiek arreta juridikoa jaso ahal izatearen alde dauden pertsonen ehunekoa nabarmen handitu da azken urteetan, pandemiaren eta Ukrainako gerraren garaian, hain zuzen ere, ia bikoiztu egin baita urte horietan.

Era berean, eta aurreko bi kasuetan bezala, zerbitzu juridikoa izateko aukeran ere ez dago desberdintasun estatistiko esanguratsurik generoari dagokionez; gizonen eta emakumeen zenbakien arteko aldeak kasualitatearen ondorio dira.

## Gizarte-laguntzak: DBSE, GLL... (%)

2023




Euskal herritarren erdiak baino gehixeagok uste dute gizarte-laguntzetarako sarbideak soilik biztanle erregularizatuen esku egon beharko lukeela (% 53,2), eta % 36,7k, berriz, uste dute pertsona guztiek izan behar luketela laguntza horietarako sarbidea. Hala ere, pertzepzio horrek indarra galdu du nabarmen 2020koarekin alderatuta (-22,3 puntu), une hartan jaitsiera handia izan baitzuen gizarte-laguntza unibertsalizatzearen alde zeuden pertsonen kopuruak. Orduz geroztik, gero eta gehiago dira laguntza horietarako sarbideak irekia izan behar duela uste duten pertsonak, administrazio-egoera edozein izanda ere.

Gizarte-laguntzetarako sarbideari buruzko pertzepzioan, berriz ere, generoa ez da aldagai esanguratsua estatistiketan; ez dago alderik gizonen eta emakumeen artean.

## Senide gertukoena ekartzea (%)

2023




Gizonak

33,0

Emakumeak

32,2



g17e


Hiru euskal herritarretatik bat inguruk (% 32,6) uste du pertsona guztiek izan behar dutela senide gertukoena ekartzeko eskubidea, edozein delarik ere duten administrazio-egoera. Hala ere, gehiengoarentzat (% 60,7) sarbide horrek soilik administrazio-egoera erregularrean dauden etorkinen esku egon beharko luke; dena dela, iritzi horrek indarra galdu du aurreko urteekin alderatuta.

Generoari erreparatuta, emaitzek adierazten dute ez dagoela desberdintasun estatistiko esanguratsurik, eta, beraz, esan dezakegu gizonak eta emakumeek antzeko iritzia dutela senide gertukoak ekartzeari buruz.



## Babes ofizialeko etxebizitza (%)

2023




Gizonak

32,1

Emakumeak

32,4




g17d

Euskal herritar gehienek ustez, babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) eskuratzeko eskubideak etorkin erregularizatuentzat izan behar luke (% 59,2), baina azken urteetan handitu egin da denentzat izan behar duela uste dutenen ehunekoa (2023an % 32,3).

Generoaren ikuspegitik, ez dago desberdintasun estatistiko esanguratsurik gizonen eta emakumeen artean; biek dute antzeko pertzepzioa babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko eskubideari buruz.

## Bozkatzea (%)

2023




Gizonak

24,9

Emakumeak


27,6



Hamar pertsonatik seik uste dute (% 61,1) egoera administratibo erregularra duten etorkinek izan behar dutela boto-eskubidea. Nolanahi ere, beste % 26,3k uste dute eskubide horrek unibertsala izan behar duela egoera administratiboa edozein dela ere.

Datuak generoaren ikuspegitik aztertuta, ez da ikusten desberdintasun esanguratsurik gizonek eta emakumeek boto-eskubideari buruz duten pertzepzioan.


### Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek doan izan beharko lituzkete zerbitzu hauek? (%)



Euskal herritarren gehiengoak uste duenez, etorkin guztiek doan ikasi ahal izan beharko lukete gaztelania (% 74,8), lanbide-heziketa (% 69,2) eta euskara (% 65,6). Bestalde, % 41,9k bakarrik uste du doan ikasi ahal izan beharko luketela beren jatorrizko hizkuntza, eta % 34,4k, berriz, uste du etorkin bakar batek ere ez duela izan behar zerbitzu hori doan.

g18

## Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek doan izan beharko lituzkete zerbitzu hauek? (%)




Bilakaerari begiratuta, euskal gizartearen iritzi publikoa egoeraren erritmo berean aldatuz joan da. Hortaz, krisialdi ekonomikoa baino lehenagoko urteetan, euskal herritar gehiagok uste zuten etorkin guztiek zerbitzu horiek (gaztelaniako doako eskolak, euskarakoak, jatorrizko hizkuntzakoak eta lanbide-heziketako ikastaroak) izan beharko lituzketela. Alabaina, 2012an, krisialdi ekonomikoak Euskadin gogorren jo zuenean, behera egin zuen jarrera horren aldekoen kopuruak. 2013 eta 2018 artean balio horiek berreskuratu ziren eta 2019an atzera egin zuten berriz. Pandemia lehenengo eta Ukrainako gerra gero etorri zirenean, areagotu egin zen herritarren pertzepzio inklusiboagoa.

Azken urtean, zerbitzu horiek doan jasotzeko eskubidea izatearen alde dago euskal herritarren gehiengoak, baina pixka bat behera egin du, eta 2021eko balioetara itzuli da.

g18

## Gaztelaniako eskolak (%)

2023




Gizonak

76,6

Emakumeak

73,1




Euskal gizartearen gehiengoaren ustez, pertsona guztiek eduki behar dute gaztelaniako eskolak doan jasotzeko aukera (% 74,8), eta badirudi iritzi hori azken urteetan finkatu egin dela euskal gizartearen. Bestalde, zenbaiten ustez eskubide horrek pertsona erregularizatuentzat izan behar luke (% 19) edo etorkin bakar batentzat ere ez (% 3,9).

Eboluzioari dagokionez, 2004 eta 2023 artean, dezente handitu da etorkin guztien eskubidea dela uste dutenen ehunekoa, 2012an izandako jaitziera nabarmena salbu.

Jarrerak generoari erreparatuta aztertuz gero, hemen ere ez dago desberdintasun esanguratsurik estatistiketan.

## Lanbide-heziketako ikastaroak (%)

2023




Gizonak

72,2

Emakumeak

66,4




Hamar pertsonatik zazpik uste dute etorkinek doan jaso beharko lituzketela lanbide heziketako ikastaroak, edozein administrazio-egoeratan daudela ere (% 69,2). Nolanahi ere, herritarren laurdenaren ustez (% 26,8) zerbitzu honek egoera administratibo erregularizatuan dauden etorkinentzat bakarrik izan behar du.

Nolanahi ere, 2004 eta 2023 urteen artean lanbide-heziketako ikastaroetarako sarbideak unibertsean izan behar duela uste duten pertsonen ehunekoak gora egin du nabarmen (+30,8 puntu), azken urtean pixka bat jaitsi bada ere.

Generoari erreparatuta, zenbakietan alde txikiak dauden arren, ezin da esan gizonen eta emakumeen artean desberdintasun estatistiko esanguratsurik dagoenik: antzeko pertzepzioa dute.

## Euskarako eskolak (%)

2023




Gizonak

69,6

Emakumeak

61,9




Euskal herritarren bi herenak (% 65,6) uste du etorkin guztiek izan beharko luketela aukera euskarako eskolak doan jasotzeko. Bestalde, % 22,6ren iritziz, legez dauden pertsonak bakarrik jaso beharko lituzkete, eta % 6,5ren iritziz, inork ez.

Bilakaerari dagokionez, 2011. eta 2012. Urteetan indarra galdu zuen pertsona guztiek euskarako eskolak doan izatearen aldeko jarrerak. Ondoren, eta batez ere 2015etik aurrera, ehuneko horrek gora egin du berriro. Azken urtean, eta beste zerbitzuen kasuan egiaztatu ahal izan dugun bezala, pixka bat jaitsi egin da jarrera horren aldeko pertsonen ehunekoa, Ukrainako krisiaren aurreko urteetako joerarekin jarraituz.

Euskarako eskolen kasuan estatistiketan ez dago desberdintasun esanguratsurik gizonen eta emakumeen artean: antzeko iritzia dute.

## Jatorrizko hizkuntzako eskolak (%)

2023




Gizonak

43,8

Emakumeak

40,2



g18d

Euskal gizartea zatitua dago jatorrizko hizkuntzako eskolak doan jasotzeko eskubideak unibertsera izan behar duela uste dutenen (% 41,9), inorentzat ez duela izan behar uste dutenen (% 34,4) eta pertsona erregularizatuentzat bakarrik izan behar duela uste dutenen artean (% 14,5).

Kasu honetan ere, ez da desberdintasun estatistiko esanguratsurik ikusten gizonen eta emakumeen artean.



# 4



## **Bizikidetzta-ereduak eta harremanetarako espazioak**

- a. Bizikidetzta-ereduak
- b. Harremanetarako espazioak

## A) BIZIKIDETZA-EREDUAK

### Euskal gizartearen harremanen pertzepzioa

Oro har, euskal gizarteak uste du etorkinekin duen harremana aurreko urteetan izandakoaren antzekoa dela, edo aurreko urtetan baino pixka bat hobea.

Bizikidetza-ereduei eta aniztasunaren kudeaketari dagokionez, euskal gizarteak aniztasun kulturalarekiko zenbait jarrera positibo erakutsi ditu, eta ez du uste, esate baterako, etorkinen erlijio-jarduerak arriskuan jartzen dutenik gure bizimodua (2023an, % 67,8). Hala ere, biztanle gehienek uste dute bizikidetzarako ahaleginak, neurri handi batean, etorkinen esku daudela (% 77,2), gure lege-esparrua kontuan hartuta, eta euskal herritarren % 66,3k uste dute etorkinek alde batera utzi behar dituztela gure legediarekin gatazkan sartzen diren kultura eta erlijioaren zatiak.

Hala, euskal gizartea oraindik ere kultura anitzeko gizartearen aldekoa den arren, asimetria nabaria dago gizarteratze-prozesuan. Aniztasuna eta hark dakarren aberastasuna onartzen dira, baina gehiengoak uste du

### Bizikidetza-ereduak


bizikidetzaren aldeko ahalegina, denoi dagokigun arren, batez ere etorkinek egin behar dutela.

Euskal herritar gehienek uste dute etorkinek bizitza kulturala aberasten dutela, baina, aldi berean, gehiengoak dira pentsatzen dutenak hobe dela harrera-herrialdeko hizkuntzak hitz egitea, edo guztiok ohitura eta usadio berberak izatea.

(Oker izendatutako) bigarren belaunaldi gisa ezagutzen diren horien kasuan, euskal herritar gehienek beren parekotzat hartu ohi dituzte atzeritar jatorriko gurasoak dituzten pertsona horiek (Euskadin edo Espainiako Estatuan jaioak eta aita eta/edo ama atzerrian jaioa), eta ez dute uste etorkizunean arazorik sortuko denik aniztasuna gaizki kudeatzearen ondorioz.

## Udalerriko edo auzoko bizikidetzagiroa eta harremanak

Otik (oso txarra) 10era (bikaina) bitarteko puntuazioa




Euskal gizarteak udalerrietan eta auzoetan hautemandako bizikidetzagiroa hobetu egin da azken urteetan, eta batez besteko balorazioa 6,77 puntukoa izan da 2023an. Hala, iazko aldean atzera egin den arren, gero eta hobea da atzerritar jatorriko herritarren eta bertakoen arteko giroaren pertzepzio subjektiboa.

Ez dago desberdintasun estatistiko esanguratsurik gizonen eta emakumeen artean, antzeko iritzia dute.

g7


## Euskal herritarren eta atzerriko jendearen arteko harremanak, zure ustez, hobera egin du, txarrera egin du, edo duela urtebete bezalakoa da? (%)



Harremanak ia berdin mantendu direla pentsatzen dute gehienek (% 69,6). Nolanahi ere, pixka bat gehiago dira hobera egin dutela uste dutenak (% 15,2) txarrera egin dutela irizten diotenak baino (% 12,8). Estatistikaren ikuspuntutik, ez dago desberdintasun estatistiko esanguratsurik gizonen eta emakumeen artean.

Bilakaerari dagokionez, aipagarria da Euskadin krisialdi ekonomikoak eragin handiena izan zuen garaia (2011-2012), garai hartan jo baitzuen goia harremanek txarrera egin dutela uste zutenen ehunekoak (% 31,8). Ordutik hona, eta tartean izan ditugun krisiak gorabehera –krisialdi soziosanitarioa eta energetikoa, inflazioa, Ukrainako gerra, etab.– datuak hobetuz joan dira, esanguratsua ez den bariazioen batekin.

## Bizikidetzaren ereduak. Balorazioa (%)



% 90,3k dio mundu guztiarentzat hobe dela guztiok, immigranteek eta bertakoek, harrera-herrialdeko hizkuntzak hitz egitea.


Euskal gizartearen % 75,3k uste du beste talde etnikoetako atzerritar jatorriko immigranteek Euskadiko bizitza kulturala aberasten dutela.

Bestalde, Euskal herritarren erdiak baino gehiagok (% 53,5) pentsatzen du hobe dela bertan bizi garen guztiok ohitura eta usadio berberak izatea, % 31,7, berriz, ez dator bat baieztape horrekin.


Biztanleen bi herenak (% 67,8) ez du uste atzerritar jatorriko pertsonen erlijio-jarduerek euskal biztanleriaren bizimodua arriskuan jartzen dutenik.

## Bizikidetza-ereduak. Balorazioa (ados, %)


**Bizitza kulturala aberasten dute**




**Hobe da bertan bizi garen guztiok ohitura eta usadio berberak izatea**



**Hobe da guzti-guztiok harrera-herrialdeko hizkuntzak hitz egitea**



**Beren erlijio-jarduerek arriskuan jartzen dute gure bizimodua**




g21b, 21c, 21e, 21h

Esan daiteke 2004tik, oro har, gora egin dutela bizikidetza-eredu “asimilazionista leunaren” (dekantazio bidez, ez inposaketa bidez) aldeko jarrerak. Ideia hori, adibidez, honako iritzi hauetan islatzen da: “hobe da guztiok harrera-herrialdeko hizkuntzak hitz egitea”.

## Euskal gizartearentzat hobe da guzti-guztiok, immigranteek eta bertakoek, harrera-herrialdeko hizkuntzak hitz egitea (%) (\*)

2023




Gizonak

88,6

Emakumeak

91,9



g21c


Bistakoa da euskal gizarteak Euskadiko hizkuntzak ezagutzean oinarritzen dituela kulturen arteko bizikidetzat eta aniztasuna: hala uste du % 90,3k, eta kopuru hori gero eta handiagoa da eta gora egin du joan den urtearekin alderatzen badugu (+3,8 puntu). Komunikazioaren, elkarrekintzaren eta elkar ulertzearen abiapuntua da.

Generoaren arabera aztertzen badugu, ikusiko dugu hemen ere ez dagoela alde esanguratsurik gizonen eta emakumeen artean.

(\*) 2004. eta 2007.-2011. urteetako Barometroetan: Euskal gizartearentzat hobe da guzti-guztiok, immigranteek eta bertakoek, hizkuntza bera hitz egitea.

## Beste talde etnikoetako etorkin atzerritarrek Euskadiko bizitza kulturala aberasten dute (%)

2023



Ed/Ee  
Kontra  
Ez ados, ez kontra  
Ados


Gizonak

75,9

Emakumeak

74,6

g21h




Euskal herritar gehienek iritziz, beste herrialde eta kultura batzuetako pertsonak etortzeak EAEko bizitza kulturala aberastu du (% 75,3 dago horrekin ados). Hau da, teoriar, badirudi euskal gizartea beste kultura batzuetara irekia dagoela. Bilakaerari dagokionez, hainbat urteren ondoren behera egin zuen immigranteek Euskadiko bizitza kulturala aberasten dutela uste dutenen ehunekoak; 2017az geroztik ikuspuntu horrek gora egin du etengabe. Azken urtean, badirudi ikuspegi horrek indarra galdu duela, euskal gizartean ondo errotutako ideia izaten jarraitzen badu ere.

Generoari erreparatuta, emaitzek adierazten dute ez dagoela desberdintasun estatistiko esanguratsurik, eta, beraz, esan dezakegu gizonek eta emakumeek antzeko iritzia dutela.



## Euskal gizartearentzat hobe da bertan bizi garen guztiok ohitura eta usadio berberak izatea (%)

2023




Gizonak

52,1

Emakumeak

54,8

g21b




Euskal herritarren erdiak baino gehiagok uste dute hobe dela denok ohitura eta usadio berberak izatea (% 53,5).

Bilakaerari dagokionez, azken urtean kopuru horrek behera egin badu ere, serie historiko osoa kontuan hartzen badugu, esan dezakegu kopuruak nabarmen aldatu direla, 9,7 puntu inguru igo baita bi hamarkada inguruan.

Generoaren arabera, kasu honetan ere, ez da desberdintasun estatistiko esanguratsurik ikusten gizonen eta emakumeen artean. Bi generoek antzeko pertzepzioa dute gizarteratze prozesuari buruz.

## Immigranteen erlijio-jarduerak arriskuan jartzen dute gure bizimodua (%)

2023




Gizonak

Emakumeak

16,5

20,5

g21e




Euskal herritar gehienaren ustez (% 67,8) immigranteen erlijio-jarduerak ez dute arriskuan jartzen gure bizimodua. Bestalde, herritarren % 18,6k kezka ditu: ehuneko hori nabarmen handitu da azken urtean (+13,8 puntu), osasun-krisiaren eta Ukrainako gerraren aurreko urteek markatutako joerak jarraitzen badu ere.

Grafikoari erreparatu gero, arreta pizten dute azken urteetako zerra-hortzek, baina badirudi joera horrek mesfidantza txikiagoa erakusten duela katolikoa ez den beste erlijio batzuekiko.

Generoaren arabera, emaitzek erakutsi dute ikuspuntu estatistikotik ez dagoela diferentziarik, eta, beraz, esan dezakegu gizonen eta emakumeen artean ez dagoela alderik erlijio-jardunbide berriek gure bizimoduan dituzten ondorioak baloratzeko orduan.

## Bizikidetzaren ereduak. Aniztasunaren kudeaketaren balorazioa (%)



g21a, 21g, 21i, 21l

Euskal gizartearen gehiengoarentzat, *a priori*, bizikidetzarako ahaleginak partekatua izan behar du (% 82,9).


Nolanahi ere, gehiengoaren iritziz, egokitzapen-ahaleginik handiena etorkinek egin behar dute (% 77,2).

Aldiz, oso gutxi uste dute ahalegin hori bertako biztanleek egin behar dutela (% 38,5).


Aniztasunaren kontu horretan sakonduz, euskal gizartearen bi herenak uste du etorkinek albo batera utzi behar dituztela beren erlijio edo kulturako alderdiak, baldin eta gure legediarekin gatazkan badaude (% 66,3).

## Bizikidetzaren ereduak. Aniztasunaren kudeaketaren balorazioa (adostasun, %)


Etorkinek gure legediarekin bat ez datozen beren kulturaren alderdiei uko egin




Hemengok ahalegindu



Guztionez ahalegina



Etorkinek ahalegindu




g19a, 19g, 19i, 19l

Eboluzioari dagokionez, azken urtean ugartu egin dira bizikidetzak guztionez ahalegina izan behar duela uste dutenak.

Dena dela, ahalegin handien norik egin behar lukeen galdetu zaienean, oraindik ere gehienek uste dute etorkinek egin behar dutela ahalegin hori. Hala ere, 2023an nabarmen handitu da ahalegin hori hemengok egin behar dutela uste dutenen kopurua.

Bizikidetza hobetzeko, **guztiok egin behar dugu ahalegin bat**, bai pertsona etorkinek, bai hemengoek ere (%)

2023




Ed/Ee  
Kontra  
Ez ados, ez kontra  
Ados

Gizonak

83,0

Emakumeak

82,8




g211

Euskal gizarteak badaki zeinen garrantzitsua den guztiok ahalegina egitea, bai atzeritarrek bai hemengoek. Horregatik, % 82,9k uste du, bizikidetza hobetu nahi bada, batzuek zein besteek ahalegindu behar dutela. Dena den, ahalegina ez da modu simetrikoan egiten, etorkinak baitira integrazio- prozesuaren karga eraman behar dutenak, lehenago ikusi dugun moduan.

Generoari erreparatuta, estatistiketan ez dago alde esanguratsurik.

Euskadin bizikidetza hobetzeko, **immigranteak** gure ohiturak eta usadioak hartzen **ahalegindu** beharko lirateke (%)

2023




Gizonak

74,9

Emakumeak

79,4




g21g

Arestian aipatu dugun moduan, euskal herritarren gehiengoarentzat, bizikidetza ona eraikitzeko oinarria immigranteek gure ohiturak eta tradizioak hartzeko (% 77,2) ahalegina egitea da.

Generoari erreparatuta, zenbakien artean aldeak dauden arren, ezin dugu esan estatistikan desberdintasun esanguratsuak daudenik gizonen eta emakumeen artean: atzeritar jatorriko biztanleriaren bolumenta hautemateko modua ez da aldatu.

Erabat onartuak izateko, **etorkinek gure legediarekin bat ez datozen beren kulturaren edo erlijioaren alderdiei uko** egin behar diete (%)

2023




Gizonak

67,2

Emakumeak

65,5





g21i

Euskal herritarren beste pertzepzio eta jarrera batzuen ildo beretik, % 66,3k uste du etorkinek uko egin behar dietela gure legediarekin bat ez datozen beren kulturaren edo erlijioaren alderdiei. Horrek haustura eragiten du joan den urteko datuekiko, orduan ez bezala, datu horiek gora egin baitute eta 2021eko eta aurreko urteetako kopuruen antzekoak baitira.

Generoari erreparatuta, estatistiketan ez dago alde esanguratsurik.

Euskadin bizikidetzeta hobetzeko, **hemengoek ahalegindu** beharko lukete etorkinen ohiturak eta usadioak ezagutzen eta horietara egokitzen (%)

2023



g21a

Gizonak

Emakumeak



Bertakoek ohitura berri horietako batzuetara egokitzen ahalegindu beharko luketen galdeturik, baieztapen horren aurka dago herritarren % 42,6, eta beste % 38,5ek uste du bertakoek ere ahalegina egin beharko luketela bizikidetzeta hobetzeko. Ikusten denez, azken urteetako joera aldakor horrek zerra-hortzak ageri ditu oraindik ere, baieztapen horren alde eta aurka dauden pertsonen ehunekoa aldatzen joan baita.



Gizonek eta emakumeek antzeko iritzia dute bertako biztanleriak bizikidetzeta-prozesuan duen egitekoari buruz, eta generoaren arabera ez dago alde nabarmenik estatistikaren ikuspuntutik.

(\*) En el Barómetro 2007: Para lograr una mejor convivencia en Euskadi sería bueno que los autóctonos renunciáramos a algunas de nuestras costumbres y tradiciones.



Etorrin atzerritarren seme-alabak, hemen, Euskadin jaiotakoak, **euskalduntzat** har daitezkeela uste al duzu? (%)

2023




g38

Azken hamarkadetako migrazio-fluxuen ondorio gisa, gero eta gehiago dira Euskadin jaiotako atzerritar jatorriko pertsonen seme-alabak. Hau da, atzerritar jatorriko euskaldunak dira. Haien integrazio-prozesuaz galdeturik, euskal gizarteko gehiengo handi baten ustez, Euskadin jaiotako atzerritar jatorriko pertsona horiek eskubide osoko euskaldun dira (% 87,8), eta hori uste dutenen kopurua handi mantendu da horretaz galdetzen hasi ginenetik.

Estatistiketan ez da alde esanguratsurik ikusten gizonen eta emakumeen artean; atzerritar jatorriko pertsonen seme-alabei buruz duten pertzepzioa antzekoa da.

Pertsona horiek aipatuta, aita eta/edo ama atzerritarra izan arren Euskadin jaiotakoak izanik, etorkizunean, hamabost edo hogeitaz berru, zure iritziz **gizarteak arazoak izan al ditzake** atzerritar jatorriko kolektiboren batekin? (%)

2023




Gizonak

49,4

Emakumeak

46,0



g39

Euskaldunen belaunaldi berri horiekin jarraituz, euskal herritarren erdiaren baina pixka bat gutxiagoren ustez (% 47,7), gizarteak etorkizunean ez du arazorik izango aniztasun hori kudeatzeko. Aurreko urteetako datuei erreparatzen badiegu, iritzi horrek gehiengoa izaten jarraitzen badu ere, badirudi euskal gizarteak ez daukala hain argi gai horrek zer bilakaera izango duen, 2921etik nabarmen handitu baita gure komunitateko aniztasun etnokulturalaren kudeaketari begira ezkorrak direnen ehunekoa.

Generoaren arabera, hemen ere ezin dugu esan alde esanguratsurik dagoenik.

## B) HARREMANETARAKO ESPAZIOAK


Etorkinen eta bertakoen ezaugarriak Atzerritar jatorriko emakumeak	Sinpatia-maila jatorrien arabera	Balizko bizikidetz eta harremanak	Islamarekiko sentimendua
---	-------------------------------------	--------------------------------------	--------------------------

Atzerritar jatorriko pertsoneri egozten zaizkien nortasun-ezaugarrien pertzepzioak erakusten du, oro har, euskal gizarteak berdintzat hartzen dituela pertsona horiek.

Horren harira, euskal gizarteak sinpatia-maila handiagoa du kulturaren, politikan edo gizarte-arloan hurbilagoak diren kolektiboekiko, esate baterako Argentinatik edo Europar Batasunetik datozenekiko. Integrazioaren eta sinpatia-mailaren pertzepzio hori txikiagoa da Magreben edo Asiaren kasuan.

Erlijioari dagokionez, handitu egin da Islamarekiko konfiantza-maila, serieko baliorik handienara iritsiz, baina oraindik oso behean dago (10etik 3,57 puntu).





### Atzerriko pertsonak nolakoak iruditzen zaizkizu, Euskadikoekin alderatuta? (%)



g26

Bertako biztanleria eta etorkinena alderatzean, nortasun-ezaugarri estereotipatuei dagokienez, gehien-gehienek uste dute berdinak direla alderdi gehienetan (adeitsuak, zintzoak eta langileak), matxismoari dagokienez izan ezik. Galdeketa egindako pertsonen % 59,7k uste du atzeritar jatorriko pertsonak matxistagoak direla bertakoak baino.



**Atzerriko pertsonak nolakoak iruditzen zaizkizu, Euskadikoekin alderatuta?** Erantzun-aukera: Euskadikoak bezain...(%)



Euskal gizarteak aztertutako ezaugarriei buruz duen ikuspegiak nahiko egonkor eutsi dio 2009tik gaur egunera arte.

## Zintzoak (%)

2023





g26d

Euskal gizarteak bertakoak bezain zintzotzat hartzen ditu atzerritar jatorriko pertsonak (% 84,7). Iritzi hori dutenen kopurua 17,9 puntu handitu da 2008tik.

Ehunekoetan alde txiki batzuk badira ere, gizonak eta emakumeek antzera baloratzen dute etorkinen zintzotasuna, eta ez dago alde estatistikoki esanguratsurik.

## Adeitsuak (%)

2023




g26a

Euskal herritar gehienek uste dute atzerritar jatorriko pertsonak bertakoak bezain adeitsuak direla, eta, jasotako datuen arabera, gero eta alde txikiagoak hautematen ditugu adeitasunari dagokionez. 2008tik 2023ra bitartean, 20,6 puntu hazi da ikuspegi hori dutenen ehunekoa.

Zenbaketan aldeak dauden arren, ezin dugu esan gizonen eta emakumeen pertzepzioan dauden alde estatistikoak esanguratsuak direnik.

## Langileak (%)

2023



g26b



Euskal herritarren ustez, bertakoak bezain langileak dira etorkinak (% 81,6). Berez, urteak aurrera joan ahala, gero eta gure antzekoagotzat jotzen ditugu: bi hamarkadatan 22,1 puntu hazi da ehuneko hori.

Kasu honetan ere, ez da desberdintasun estatistiko esanguratsurik ikusten gizonen eta emakumeen artean.



## Matxistak (%)

2023




g26c

Kasu honetan, euskal biztanleek immigrantei buruz duten irudia matxistagoa da bertakoei buruz dutena baino (% 59,7). Bilakaerari erreparatuz gero, asko aldatu da euskal herritarrek kontu horrekiko duten ikuspegia, baina erantzunen % 50etik gora egon da sistematikoki. Horren harira, azken urtean berriro ere gora egin du kopuru horrek, 2022an 52,3 izatetik 59,7 izatera pasa baita gaur egun.

Generoaren arabera, matxismoaren gaian ere ez dago desberdintasun estatistiko esanguratsurik. Gizonen nahiz emakumeen pertzepzioa antzekoa da, eta desberdintasunak zoriaren ondorio dira.

## Oro har, atzerritar jatorriko emakumeak dira...



g44

Atzerritar jatorriko emakumeen kasuan, adjektibo positiboen eta negatiboen sorta bat aurkeztu zaienean, euskal herritar gehienek tarteko posizioan jarri dituzte. Hau da, ez ona, ez txarra: atzerritar jatorriko emakume guztiak ez dira atseginak, baina ezta antipatikoak ere, era guztietakoak daude.


Ikuspegi hori aldatu egin da zenbait adjektibo planteatu ditugunean. Hala, euskal herritarren erdiek baino gehiagok uste dute atzerritar jatorriko emakumeak oso fededunak direla (% 67,7), matxistak direla (% 54), eta erdiek baino zertxobait gutxiagok uste dute otzan samarrak direla (% 49,2).

## Oro har, atzerritar jatorriko emakumeak dira nahiko... sexuaren/generoaren arabera, (%)


■ Atseginak ■ Ez bata eta ez bestea ■ Antipatikoak



■ Zintzoak ■ Ez bata eta ez bestea ■ Gezurtiak




■ Ateoak ■ Ez bata eta ez bestea ■ Fededunak




■ Langileak ■ Ez bata eta ez bestea ■ Alferrak



■ Interesatuak ■ Ez bata eta ez bestea ■ Altruistak



■ Ahaldunduak ■ Ez bata eta ez bestea ■ Otzanak



g44


■ Arduratsuak ■ Ez bata eta ez bestea ■ Ganorabakoak




■ Trebeak ■ Ez bata eta ez bestea ■ Ezgaiak



■ Feministak ■ Ez bata eta ez bestea ■ Matxistak




■ Prestatuak ■ Ez bata eta ez bestea ■ Ezjakinak



Generoaren arabera bereiziz gero, ikusiko dugu gizonen eta emakumeek antzeko iritzia dutela lurraldera iritsi diren emakume atzerritarrei buruz. Zenbakizko desberdintasun txikiak zoriaren ondorio dira.

## Nazionalitate nagusien integrazio-maila:

Otik (batere ez integratuak) 10erako (guztiz integratuak)



Euskal herritarrei jatorri bakoitzak duen integrazio-mailari buruz galdetuta, ikusi dugu maila hori handiagoa dela bere antzekoenen eta kulturalki hurbilen dituenen kasuan. Hala, euskal gizarteak integratuago ikusten ditu Europako edo Latinoamerikako biztanleak.


Beste muturrean, Magrebetik edo Asiatik etorritako pertsonak ditugu (4,4 eta 5,3 puntu batez beste, hurrenez hurren), horiek baitira integrazio-maila txikiena duten eremuak.

Pertzepzioen bilakaerari dagokionez, 2016az geroztik, horri buruz galdetu genuen azken alditik, orain arte nabarmen hobetu da aztertutako jatorri guztien integrazio-maila. Hala ere, hobekuntza hori bereziki nabarmena izan da lehen 5 puntutik behera zeudenen artean: Errumania (+1,84 puntu), Pakistan, Nepal eta Bangladesh (+1,28) edo Txina (+1,01).

g41

## Nazionalitate nagusien integrazio-maila, sexuaren/generoaren arabera:

Otik (batere ez integratuak) 10erako (gutziz integratuak)




g41

Integrazioaren pertzepzio hori generoaren arabera aztertzen badugu, ikusiko dugu ez dagoela alde estatistikoki esanguratsurik. Gizonek nahiz emakumeek uste dute latinoamerikarrak (eta bereziki Argentinakoak) eta erkidegoko biztanleak direla sorterri integratuenak.

Beste muturrean ditugu Asiako eta Magrebeko etorkinak, eta horien inguruan bi generoek zalantza handiagoak dituzte integrazio-mailari buruz.

## Nazionalitate nagusiekiko sinpatia-maila:

Otik (sinpatia eza) 10erako (sinpatia handia) eskala



g22


Begikotasunari dagokionez, euskal biztanleek begikotasun handiagoa dute, antza denez, pertzepzioaren arabera integratuago dauden eta/edo integratzeko gaitasun nahiz interes handiagoa duten kolektiboekiko. Edo alderantziz.

Begikotasun-maila txikiagoa dago Magrebetik eta Pakistandik, Nepaetik edo Bangladesetik etorritako pertsoniekiko. Marokoren, Aljeriaren eta Magreben kasuan, kolektibo horrek du, urtetik urtera, begikotasun-maila txikiena. Argi eta garbi, gure gizartetik kulturalki oso urrun dauden jatorriak dira eta unibertso sinboliko (hizkuntza, erlijioa, kultura-jardunbideak eta abar) oso bestelakoak eta urrunenak dituztenak.

Bilakaerari dagokionez, lehengo jatorri berberak dira oraindik ere begikotasun-maila handiena (Europako eta Latinoamerikako biztanleak) eta txikiena (Magrebeko biztanleak) dutenak.

### Nazionalitate nagusiekiko sinpatia-maila, sexuaren/generoaren arabera:

Otik (sinpatia eza) 10erako (sinpatia handia) eskala




Generoari erreparatuta, estatistiketan ez dago alde esanguratsurik. Hala, esan dezakegu gizonen eta emakumeen arteko portaera ez dela desberdina, eta, ondorioz, zenbakien arteko aldeak zoriaren ondorio dira.

Latinoamerikatik eta Europar Batasunetik datozen biztanleek jarraitzen dute balorazio onena izaten. Magrebtar eta pakistandar jatorriak dira okerren ikusiak eta begikotasun-maila txikiena dutenak, bai gizonen artean bai emakumeen artean.

g22

**BALIZKO BIZIKIDETZA ETA HARREMANAK.** Esan kasu bakoitzean ea harreman hori onartuko zenukeen, saihesten saiatuko zinatekeen edo gaitzetsi egingo zenukeen... (%)




Bertakoen eta etorkinen arteko balizko bizikidetzari eta harremanei dagokienez, tolerantzia handiagoa da honako kasu hauetan: “etorkinekin lan egitea edo ikastea” (% 94,3ren onarpena), “etorkin bat zure laneko nagusia izatea” (% 93,8) edo “seme-alabek lagun etorkinak eramatea etxera” (% 87,7).

Aitzitik, tolerantzia-maila txikiagoa da honako egoera hauetan: “etorkin asko bizi diren auzo edo bloke berean bizitzea” (% 51,7ren onarpena) edo “seme-alabak etorkinen seme-alaba asko dauden eskola batera eramatea” (% 63,7).

g16



**BALIZKO BIZIKIDETZA ETA HARREMANAK.** Esan kasu bakoitzean ea harreman hori onartuko zenukeen, saihesten saiatuko zinatekeen edo gaitzetsi egingo zenukeen... ("onartu" aukeraren %)




Horri buruz galdetzen hasi ginenetik, "lan egitea edo ikastea" eta "etorkin bat zure laneko nagusia izatea" izan dira euskal gizarteak gehien onartu dituen bizikidetza-kasuak.


Oro har, ikusi dugu 2018tik orain arte nabarmen hobetu dela euskal gizarteak kasu desberdinetara irekitzea. Hala ere, azken urtean atzerakada izan dugu, Ukrainako krisiaren aurreko kopuruetara itzuli baikara.

**BALIZKO BIZIKIDETZA ETA HARREMANAK.** Esan kasu bakoitzean ea harreman hori onartuko zenukeen, saihesten saiatuko zinatekeen edo gaitzetsi egingo zenukeen... , sexuaren/generoaren arabera (“onartu” aukeraren %)


Auzo berean bizizea




Eskola




Bikotekidea




Nagusia



Lagunak




Lan egitea/lkastea



Balizko bizikidetzarekin jarraituz, ezin da esan estatistikaren ikuspuntutik esanguratsua den desberdintasunik dagoenik gizonen eta emakumeen artean: antzekoa da proposatutako balizko bizikidetzaz-egoerei buruz duten jarrera.

## Islamarekiko sentimenduari dagokionez, EAeko gizarteak, zure ustez, zer sentimendu erakusten du Otik (erabateko mesfidantza) 10erako (erabateko konfiantza) eskalan?




g29

0 (erabateko mesfidantza) eta 10 (erabateko konfiantza) bitarteko eskalan, inkesta egin zaienek uste dute euskal gizartearen jarrera islamarekiko erabat mesfidantzakoa dela: 3,57 puntu eman dizkiote.

lazko aldean, euskal gizarteak islamarekiko duen pertzepzioa hobetu egin da pixka bat, 2022an 3,29 puntu izatetik 3,57 puntu izatera pasa baita gaur egun, hau da, 0,28 puntu hobetu da. Eta aztertutako urteen bilakaerak, motel bada ere, hobekuntza nabarmena erakusten du.

Generoaren arabera aldeei dagokienez, Islamari buruz ere ez dugu alde nabarmenik ikusi estatistikaren ikuspuntutik.

5




**Kultura-ereduak mantentzea**

## KULTURA-EREDUAK MANTENTZEA

**Kultura-ereduei eusteari** dagokionez, bertako biztanleriak tolerantzia erakutsi du zerbitzu bat eskaintzen duten eta/edo kultura-aniztasunaren kanpoko elementutzat edo elementu estetikotzat edo folklorikotzat har daitezkeen alderdiekiko; hala nola, immigranteek beren denda etnikoak, jatetxe exotikoak edo elikadura-dendak irekitzea.

Merkataritza-errealitate hori positibotzat ikusten da, eta gehienek onartzen dute. Hala ere, tolerantzia-maila txikiagoa da kultura-aniztasunaren berezko elementuak aintzat hartzean, hala nola beren irakaskuntza-zentroak izatea edo beren jatorrizko herrialdean bezala janztea...

## Atzerritar jatorriko biztanleen kultura-ereduen aurreko tolerantzia-maila (%)



g20


Aztertzen badugu zer tolerantzia-maila duen euskal biztanleriak atzerritar jatorriko pertsonak hemen finkatzearen edo kultura-eredu batzuei eustearen ondorioz gertatu ohi diren egoera berriekiko, aurten ere ikus dezakegu saltokiak, jatetxeak eta elikadura-estabzimenduak irekitzeak duela onarpen handiena.

Ikus daiteke gehiago hartzen direla kontuan kultura-alderdi exotiko eta azaleneoak, sakonagoak eta funtsezkoagoak direnak baino: beren irakaskuntza-zentroak izatea, beren erlijioetarako tenpluak eraikitzea edo beren jatorrizko herrialdean bezala janztea, adibidez.


## Etorkinen kultura-ereduekiko tolerantzia-mailaren bilakaera

(% “ondo iruditzen zait”)


Jatetxe exotikoak irekitzea




Haien dendak irekitzea



Berriazko elikadura-dendak izatea



Plaza eta espazio publikoak hartzea




g20a, 20d, 20g, 20h

2008 eta 2023 artean hobetu egin da azaleko kultura-ereduekiko tolerantzia-maila (adibidez, etorkinek beren jatetxeak edo dendak irekitzea, edo beren elikadura-dendak izatea), bai eta espazio publikoak erabiltzearekikoa ere, eta goi samarrean eutsi zaio.


## Etorkinen kultura-ereduekiko tolerantzia-mailaren bilakaera

(% “ondo iruditzen zait”)


### Haiei artean beraien hizkuntza erabiltzea




### Haiei erlijioetako tenpluak eraikitzea



### Jatorrizko herrialdean bezala janztea



### Haiei ikastetxe pribatuak izatea




g20b, 20c, 20e, 20f

Beste eredu batzuekiko iritzia ere hobetu egin da 2008tik hona; adibidez, etorkinek beraien hizkuntza erabiltzea, beraien erlijioetako tenpluak eraikitzea, jatorrizko herrialdean bezala janztea edo beraien ikastetxeak izatea, baina azken hiru horiek ez daude guztiz ondo ikusiak euskal gizartean.



## Sukaldaritza exotikoa duten jatetxeak irekitzea (%)

2023




Ed/Ee  
Gaizki  
Berdin  
Ondo

Gizonak

86,0

Emakumeak

80,4




g20h

Sukaldaritza exotikoa edo atzerriko sukaldaritza duten jatetxeak irekitzea da euskal gizarteak ondoen onartutako etorkinen lekukotze-ereduetako bat. 2023an horren alde agertu da biztanleen gehiengoa, % 83,1, hain zuzen ere.

Generoari erreparatuta, ez da inolako alderik nabari, ez da alde estatistiko esanguratsurik ikusten gizonen eta emakumeen artean.

## Haien dendak irekitzea (%)

2023




Gizonak

83,2

Emakumeak

80,2




Datuen bilakaerari erreparatuz gero, nabarmen handitu da etorkinek beren dendak irekitzearekiko tolerantzia-maila, eta 2008tik gaur egun arte 29,4 puntu igo da. Etapaka, onarpen-maila handia bada ere, batez ere 2017. urtetik aurrera egin du hobera. Azken urtean pixka bat behera egin du, baina gehiengoaren iritzia izaten jarraitzen du, hamar pertsonatik zortzik baitute iritzia hori.

Estatistikaren ikuspegitik, ez dago alde esanguratsurik gizonen eta emakumeen iritzien artean; biek antzera hautematen dute atzerritar jatorriko biztanleek beren dendak irekitzea.

## Berriazko elikadura-dendak izatea (%)

2023




- Ed/Ee
- Gaizki
- Berdin
- Ondo

Gizonak

78,0

Emakumeak

71,0




Ikusi dugun bezala, euskal herritarrek tolerantzia-maila handiagoa dute funtzionalagoak edo praktikoagoak diren kultura-ereduekiko, eta beren elikadura-dendak irekitzea ez da salbuespen. 2008 eta 2023 bitartean, 25,2 puntu handitu da horien onartze-maila.

Oraingoan ere ez dago alde estatistiko esanguratsurik generoari erreparatuta. Elikadura-dendak irekitzeari buruz galdetuta, antzeko iritzia eman dute gizonak eta emakumeak.

## Plaza eta espazio publikoak hartzea (%)

2023




Gizonak

65,4

Emakumeak

61,8




Inkestei erantzundako pertsonen % 63,5i ondo iruditzen zaio atzeritar jatorriko biztanleek plaza eta espazio publikoak hartzea, % 24,3ri berdin zaio, eta % 10,6ri gaizki iruditzen zaio. Horrek esan nahi du atzerapen handia izan dela joan den urtearekiko eta handitu egin dela etorkinek espazio publikoak okupatzea gaizki iruditzen zaien pertsonen ehunekoa. Nolanahi ere, serie historikoaren datu guztiak erreferentziatzat hartzen baditugu, badirudi euskal gizartea ohitzen ari dela atzeritar jatorriko pertsonak espazio publikoetan ikustera.

Kasu honetan ere generoa ez da aldagai esanguratsua estatistiketan, gizonak eta emakumeak uste baitute normala eta zilegi dela atzeritar jatorriko pertsonen espazio publikoak erabiltzea.

## Haien artean beraien hizkuntza erabiltzea (%)

2023




Ed/Ee  
Gaizki  
Berdin  
Ondo

Gizonak

65,6

Emakumeak

61,0




Hiru pertsonatik biri ondo iruditzen zaie atzerritar jatorriko pertsonen beren hizkuntza erabiltzea elkarren artean. Horrek esan nahi du behera egin duela aurreko urteetako datuekin alderatzen badugu, baina ikusi dugu, oro har, hala uste dutenen ehunekoa nabarmen handitu dela horri buruz lehen aldiz galdetu genuenetik (+20,8 puntu 2008tik).

Generoari erreparatuta, gizonak eta emakumeak antzeko pertzepzioa dute, eta estatistiketan dauden aldeak ez dira esanguratsuak.

## Haien erlijioetako tenpluak eraikitzea (%)

2023




Gizonak

53,1

Emakumeak

47,9




g20e

Etorkinek beren erlijioetako tenpluak eraikitzeaz galdetu dugunean, euskal herritarren erdiak (% 50,3) ondo ikusten du halakoak eraikitzea. Gainerako ehuneko berrogeita hamarra banatuta dago berdin zaienen (% 32,2) eta gaizki iruditzen zaienen artean (% 14,1), hori urtetik urtera beherantz doa eta minimo historikoetan dago.

Generoaren arabera, emaitzek erakutsi dute ikuspuntu estatistikotik ez dagoela diferentziarik, eta, beraz, esan dezakegu gizonen eta emakumeen artean ez dagoela alderik gurtzarako zentroak irekitzea baloratzeko orduan.

## Jatorrizko herrialdean bezala janztea (%)

2023




Gizonak

49,5

Emakumeak

41,2




g20c

Janzkera kultura-nortasuna adierazteko modu bat da. Alde horretatik, euskal biztanleen % 45,2ri ondo iruditzen zaie beren jatorrizko herrialdean bezala janztea, % 31,6i gaizki iruditzen zaie, eta % 19,5i berdin zaie. Hala, hainbat urtetan euskal herritarren pertzepzioa hobetu edo mantendu ondoren, janzteko modu desberdinei buruzko iritzia okerrera egin du azken urtean (+7,1 puntu Gaizki), eta 2020ko mailetara itzuli da berriro.

Gizonen eta emakumeen iritzien arteko desberdintasunak aztertuta, ez da alde estatistiko esanguratsurik ikusten bien artean. Kasu honetan ere, zenbakien arteko aldeek ez dute gizonen eta emakumeen arteko funtsezko desberdintasunik adierazten, zoriaren ondorio dira.

## Haien ikastetxe pribatuak izatea (%)

2023




Gizonak

46,0

Emakumeak

37,3



g20f

Etorkinek beren ikastetxeak izateaz galdeturik, horretan ere iritzia banaturik daude ondo iruditzen zaien (% 41,5), gaizki iruditzen zaien (% 36,1) eta berdina zaien (% 17,8) artean.

Kasu honetan ere, ez da desberdintasun estatistiko esanguratsurik ikusten gizonen eta emakumeen artean.



## Tolerantzia-maila: janzkera-ohiturak (%)

Beste kultura eta erlijio batzuetako pertsonak EAera etortzeak besteko janzkera-ohitura batzuk sortzea eragin du. Ohitura horietako batzuei buruz zer iritziz duzun jakin nahi genuke

Burkinia




Hijaba



Txadorra



Txilaba




Nikaba



Burka




Tunika



g15

Euskadira beste kultura eta erlijio batzuk etortzeari dagokionez, janzkerari buruz galdeturik, euskal gizartearen gehiengo handi bati ez zaizkio egokiak iruditzen burka (% 77,9) edo nikaba (% 73,8), hau da, pertsonaren aurpegia ezkututzen duten arropak. Txadorra edo burkinia eramateari dagokionez iritziz desberdinak daude, euskal herritar batzuek egokia ikusten dute eta beste batzuek, berriz, ez.


Txilabari, hijabari, eta tunikari dagokienez, ez dirudi euskal gizarteak aitzakiak jartzen dizkienik: gehienei arropa egokiak iruditzen zaizkie: % 66,8, % 69,4 eta % 76,4ko onarpena dute horiek, hurrenez hurren.

**BILAKAERA. Tolerantzia-maila: janzkera-ohiturak, sexuaren/generoaren arabera (%)**

g15

Datuak generoaren arabera aztertuta, ez dago alde nabarmenik estatistikaren ikuspuntutik, hau da, ezin dugu esan genero batek edo besteak jarrera irekiagoa edo fidagaitzagoa duenik janzteko modu desberdinekiko. Gizonek zein emakumeek antzeko iritzia dute.

## BILAKAERA. Tolerantzia-maila: janzkera-ohiturak (%)



g13

Lehen galdetu ditugun kultura-eredu batzuekin gertatu den bezala, badirudi azken urteotan okerrera egin duela janzteko era batzuekiko tolerantzia-mailak: txilaba (-9,0 puntu), tunika (-8,8), hijaba (-6,3), burkinia (-5,2) eta txadorra (-4,0).

Bitxia bada ere, euskal biztanleek historian zehar modu negatiboagoan baloratu dituzten jantziak izan dira atzerakada hori gutxien nabaritu dutenak. 2022tik 2023ra bitartean, 0,3 puntu jaitsi da nikaba egokia ikusten dutenen ehunekoa. Burka begi onez ikusten duten pertsonen ehunekoa, berriz, 1,4 puntu igo da.

# 6



## **Estereotipoak**

## ESTEREOTIPOAK


Atal honetan, euskal herritarren artean zabalduen dauden etorkinei buruzko estereotipoak aztertuko ditugu. Praktikan, estereotipo horietako asko oztopo handiak dira bizikidetzarako eta EAEn bizi garen pertsona guztion integrazioa arrakastatsua izateko.

Estereotipo eta aurreiritzi zabalduenen artean edo gehien entzuten direnen artean daude gizarte-dirulaguntzen erabilera ez egokiarekin eta neurritz kanpokoarekin lotutakoak, eta immigrazioa eta delinkuentzia lotzen dituztenak.

Hain zuzen ere, bi horiek dira euskal gizartean ezarpen-maila handiena duten estereotipoak. Estereotipo horiei aurre egitea zaila da, oinarrian ez baitago elementu neurgarririk, baizik eta irudipenak eta sentsazioak.

Eboluzioari dagokionez, aztertutako estereotipo gehienak indarra galtzen joan dira urteek aurrera egin ahala. Hala ere, aipatzekoa da estereotipo batzuetan atzerakada izan dela 2022arekin alderatzen badugu. Halatan, pandemia eta Ukrainako gerrak eragindako gizarte-larrialdia gainditu ondoren, ematen du aurreko urteetako kopurueta iritsi direla euskal herritarren pertzepzioak.


## Zure udalerrian edo auzoan gehien entzuten diren zurrumurrak (erantzun iradokia, %)



Euskal herritarrei zenbait zurrumurrur aurkeztu dizkiegunean, beren udalerrian edo auzoan gehien entzuten direnak zein diren adieraz diezaguten, etorkinen inguruko estereotipo zabalduna da “gizarte-laguntzetatik bizi dira eta neurriz kanpo erabiltzen dituzte” (% 72) eta ondoren, halako tarte batera, “immigrazioarekin delinkuentzia areagotu egiten da”.

Honako hauek dira halako hedapen-maila bat duten beste estereotipo batzuk: “ezin dugu etorkin gehiago onartu” (% 29,4), “babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzen dituzte” (% 24,7), “lana kentzen digute” (23,5) edo “ez dute hemen gizarteratu nahi” (% 23,3).

## Zure udalerrian edo auzoan gehien entzuten diren zurrumurruek (erantzun iradokia, %)




g42

Bilakaerari dagokionez, bai 2018an bai 2023an gizarte-babeseke sistemaren ustezko gehiegikeriekin lotutako zurrumurrua da oraindik ere aurreiritzi hedatuena eta gehien entzuten dena.

Hortik harago, gizarteratzearekin edo ekonomiarekin lotura handiagoa duten zurrumurruek ("lana kentzen digute" edo "ez dute hemen gizarteratu nahi") indarra galdu dute, eta beste zurrumurru batzuk, berriz, hala nola "delinkuentzia areagotzen da" edo "ezin ditugu etorkin gehiago onartu" nabarmendu egin dira.

## Zure udalerrian edo auzoan gehien entzuten diren zurrumurruek, sexuaren/generoaren arabera (erantzun iradokia, %)




g42

Generoaren arabera, ez dago estatistikoki esanguratsuen diren alderik gizonen eta emakumeen artean zurrumurruen pertzepzioari dagokionez.



## Estereotipo eta zurrumurru nagusien sailkapena (%)





g6a, 6b, 6g, 6h, 6i, 6j, 6k, 6l, 6m, 21d, 21e, 21f, 21j, 21m

Estereotipo edo zurrumurru horien aurrean duten iritzia emateko eskatu zaienean, eta aurreko grafikoan ildoari jarraituz, "gizarte-babeseko sistemaren onurak lortzen dituzte" edo "segurtasun falta eta delinkuentzia eragiten dute" dira euskal gizartean errotuen daudenak.

Aitzitik, gutxien errotuta daudenak dira "espazio publikoak hartzen dituzte", "ez dituzte arauak ezagutzen eta ez dute gizalegez jokatzten" eta "lana kentzen digute".

## Pertsona etorkinek onura handiegia lortzen dute gizarte-babesaren sistematik (%)

2023



g21d

Gizonak

1,8

Emakumeak


5,2

Etorkinek gizarte-babesaren sistematik onura handiegia lortzen duten pertzepzioa, azken urtean handitu egin bada ere, Ukrainako 2022ko krisiaren aurreko urteetako joerarekin alderatzen badugu, uste horren gaitzespen handiagoa finkatzen ari da. Hala, euskal gizartearen % 40ren iritziz, etorkinek laguntza gehiegi baliatzen dute, eta kontrako iritzia dute % 43,2k.

Generoari erreparatuta, ez dago alde estatistiko esanguratsurik.




## Atzerriko etorkinen presentziak segurtasun falta eta delinkuentzia eragiten ditu (%) (\*)

2023



Gizonak

Emakumeak



g6g



Segurtasun faltari eta delinkuentziari dagokienez, bost pertsonatik bik ez du uste immigranteak etortzeak segurtasun falta eta delinkuentzia areagotzen dituztenik; % 35,1ek baietz uste du, eragin hori izan dezakeela, eta % 21,8 ez dago ez ados ez kontra. Aurreko urteekin alderatuta, ikus dezakegu estereotipo horrek hainbat fase izan dituela. Izan ere, 2016tik aurrera, baieztapen horren kontra daudenak gehiago dira ados daudenak baino, baina azken urtean murriztu egin da bi talde horien arteko aldea. Berriz ere, nabari da pandemiaren aurreko mailetara itzuli dela joera.

Datuak generoaren arabera aztertzen baditugu, gizonak (% 47,9) emakumeak baino nabarmen gehiago daude estereotipo horren aurka, estatistikoki emakume gehiago baitago (% 40) etorkinek segurtasun falta eta delinkuentzia eragiten dutela esatearen alde.

(\*) 2004, 2007-2009ko Barometroak: Oro har, etorkinen etorrerak eragin negatiboa du herritarren segurtasunean.

## Immigrazioak handitu egiten ditu matxismoa eta genero-indarkeria (%)

2023



g6i

Gizonak

Emakumeak

31,0


33,2

Hamar euskal herritarretik lauk (% 40,4) ez dute uste immigrazioak matxismoa eta genero-indarkeria handitzen dituenik; % 32,2k, ordea, bai. Joan den urteko datuekin alderatzen badugu, ikusiko dugu gutxi gorabehera berdin mantendu dela estereotipo horrekin bat datozenen kopurua, eta, era berean, jaisi egin da, 2018tik haren kontra daudenen ehunekoa (-4,5 puntu).

Datuak generoaren arabera xehatuta, ez da alde estatistiko esanguratsurik ikusten gizonen eta emakumeen pertzepzioen artean.

## Etorquinek zerga gutxiago ordaintzen dute gero jasotzen dutena baino (%) (\*)

2023




Gizonak

24,9

Emakumeak

29,3



g21f


“Etorquinek zerga gutxiago ordaintzen dute gero jasotzen dutena baino” zurrumurruaren aurrean, euskal gizartearen % 39 baieztapen horren aurka dago, eta % 27,2, berriz, alde. Hala, ikusi dugu, hainbat urtetan murrizten joan ondoren estereotipo horrekin ados zeuden pertsonen kopurua, aurten hamar puntu baino gehixeago (+10,3) igo dela kopuru hori. Hala ere, lehen aipatu dugun bezala, pandemia urteak eta ondoko Ukrainako krisia alde batera utzita aztertzen badugu joera, handitzen ari da baieztapen horrekin bat ez datozenen ehunekoa.

Generoaren arabera, hemen ere ez dago alde nabarmenik estatistikaren ikuspuntutik.

(\*) Barómetros 2004, 2007-2009: Las personas inmigrantes pagan más impuestos de lo que luego reciben.

## Etorkinek babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) eskuratzen dituzte (%)

2023




Ed/Ee  
Kontra  
Ez ados, ez kontra  
Ados

Gizonak

25,4

Emakumeak

26,9




“Etorkinek babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) eskuratzen dituzte” estereotipoaren kasuan, gehiago dira bat ez datozenak (% 47,3) ados daudenak baino (% 26,3); % 14,1 ez dago ez ados ez kontra.

Generoari dagokionez, zenbakietan alde txiki batzuk dauden arren, estatistiketan ez dira esanguratsuak.

## Ikasle immigranteek jaitsi egiten dute eskoletako hezkuntza-maila (%)

2023




Gizonak

17,7

Emakumeak

18,8




g6b

Euskal herritarren % 58,6k uste du ikasle immigranteek ez dutela jaisten eskoletako hezkuntza-maila: % 18,3 bakarrik dago horrekin ados, eta % 14,2k zalantzak ditu. Grafikoan ikus dezakegu zurrumurru horretaz galdetzen hasi ginenetik, betiere pertsona gehiago agertu direla horren kontra alde baino.

Generoaren arabera, ez dago alde estatistiko esanguratsurik.

## Etorkinek neurritz kanpo erabiltzen dute EAEko osasun-sistema eta kolapsatu egiten dituzte larrialdi-zerbitzuak (%)

2023




Gizonak

3,2

Emakumeak

7,0




“Etorkinek neurritz kanpo erabiltzen dute EAEko osasun-sistema eta kolapsatu egiten dituzte larrialdi-zerbitzuak” estereotipoari dagokionez, euskal herritarren bi heren ez dago ados baieztapen horrekin (% 75,5). Bestalde, 2016tik 2023ra nabarmen gutxitu egin da zurrumurru horrekin ados dauden pertsonen ehunekoa (-15,3 puntu).

Generoari erreparatuta, ez dago alde estatistiko esanguratsurik.






## Immigranteek ez dute integratu nahi (%)

2023



Gizonak

Emakumeak




g6j

Etorkinek “ez dute hemen gizarteratu nahi” ustearekin loturiko estereotipoaren aurrean, euskal gizartea zatitua dago zurrumurru horren kontra daudenen (% 43) eta zalantzan daudenean (% 41) artean.

Alde horretatik, generoaren arabera aztertuta, datuek erakutsi digute gizonak nabarmen desadostasun handiagoa dutela (% 47,1), eta emakumeek, berriz, zalantza handiagoak (% 45,4).

## Etorrinek espazio publikoak hartzen dituzte, neurritz kanpo eta gaizki erabiltzen dituzte (%)

2023




Gizonak

14,0

Emakumeak

15,6




g6m

"Etorrinek espazio publikoak hartzen dituzte, neurritz kanpo eta gaizki erabiltzen dituzte" estereotipoari dagokionez, herritarren % 14,8 baino ez dago ados horrekin: argi dago euskal gizartearen gehiengoa ez dagoela ados baieztapen horrekin (% 61,2).

Estatistikaren ikuspuntutik, gizonen eta emakumeen artean ez dago alde esanguratsurik espazio publikoekin lotutako gaietan: gizonak eta emakumeak antzeko iritzia dute.

## Etorkinek ez dituzte arauak betetzen eta ez dute gizalegez jokatzeko (%)

2023




Gizonak

21,8

Emakumeak

30,5




Estereotipo horrek ez du presentziarik Euskadin. Herritarren % 67,1 baieztapen horren aurka dago, eta % 6,1ek bakarrik uste du etorkinek ez dutela gizalegez jokatzeko eta ez dituztela arauak ezagutzen.

Generoaren arabera azterketak diferentzia batzuk erakutsi dizkigu estatistikan; izan ere, emakumeen kasuan (% 30,5), gizonek baino (% 21,8) ez bai-maila handiagoa erakutsi dute emakumeek.

## Immigranteek lana kentzen digute (%)

2023




Gizonak

5,2

Emakumeak

6,5



Estereotipo honi dagokionez, euskal gizartea ez dago ados. % 79,9k ez du uste etorkinek gainerako herritarrei lana kentzen dietenik, eta % 5,9k baietz uste du. Hala, 2013 eta 2022 artean dezente jaitsi da immigranteek lana kentzen digutela uste duten pertsonen ehunekoa.

Generoari erreparatuta, zenbakietan alde txikiak dauden arren, ezin da esan gizonen eta emakumeen artean desberdintasun estatistiko esanguratsurik dagoenik.

# 7



## **Immigrazio-politika**

- a. Sartzea, bizitzen geratzea eta kanporatzea
- b. Erregularizatu gabeko immigranteekiko politika
- c. Babesa edo asiloa eskatzen duten pertsonetikiko politika
- d. Bakarrik dauden adingabe atzerritarrekiko politika

## IMMIGRAZIO-POLITIKA



Atal honetan, euskal biztanleriaren erantzunen arabera euskal erakundeek zer-nolako immigrazio-politika egin behar duten aztertuko dugu. Horretarako, immigrazio-politikarik egokienari buruz, kanporatzeko arrazoiei buruz eta, batetik, babesa edo asiloa eskatzen duten pertsonekin eta, bestetik, bakarrik dauden adingabe atzerritarrekin hartu beharreko politikari buruz galdetu diegu bertako herritarrei.


Oro har, euskal gizarteak immigrazio-politikarekin lotzen du hainbat baldintza betetzea, hala nola lan-kontratu bat edukitzea, edo legezko beste eskakizun batzuk: familia elkartzea, ikaslea izatea, errefuxiatua izatea, etab.

Bitxia bada ere, euskal biztanleriak garrantzi handia eman izan arren lan-loturaren bat izateari, behin Espainiako estatuan sartu ondoren, lana galtzea ez da kanporatzeko arrazoitzat hartzen, eta delitu bat egitea ere ez. Beraz, lan-kontratu ezinbesteko baldintza bat da immigrazio “kontrolatua” izateko, eta alde batera uzten da komunikabideetan eta diskurtso sozialetan nagusi den irudia; izan ere, diskurtso horietan, migrazio-fluxu masibo eta kontrolik gabeak erakusten dira, “uholde” modukoak balira bezala.

Errefuxiatuen gaiak eragin sozial eta mediatiko handia izan du azkenaldian, eta euskal gizarteak jarrera irekia izaten jarraitzen du. Beste horrenbeste esan daiteke bakarrik dauden adingabe atzerritarren kasuan ere, pertzepzioak okerrera egin badu ere 2022arekiko.

## A) SARTZEA, BIZITZEN GERATZEA ETA KANPORATZEA

## Immigrazio-politika euskal herritarren arabera (%) (\*)



- Inolako lege-trabarik gabe sartzen uztea
- Lan-kontratua dutenei bakarrik sartzen uztea
- Legezko beste baldintza batzuk betetzen dituztenei sartzen uztea: familia berriz biltzea, ikasleak, errefuxiatuak...
- Erabat debekatzea etorkin atzerritarrek sartzea
- Ed/Ee

(\*) 2007.-2011. urteetako Barometroetan: inolako lege-trabarik gabe sartzen uztea; lan-kontratua dutenei bakarrik sartzen uztea; erabat debekatzea etorkin atzerritarrek sartzea

Gizonak      Emakumeak

34,6

34,0

g9



Euskal herritarren % 34,3k uste du ez dela inolako lege-oztoporik jarri behar etorkinen sarrera eragozteko. % 61,6k sarrera baimenduko luke, baina honako baldintza hauekin: laneko kontratu bat izatea (% 44,5) edo bestelako legezko betekizun batzuk betetzea (% 17,1). Bestalde, biztanleriaren % 1,2k erabat debekatuko lukete immigraenteen sarrera.

Datuek erakusten digute euskal gizarteak lan-merkatuaren beharrek inotzen dituela sartzeko baldintzak. Horri dagokionez, 2022an % 28,2 izatetik % 44,5 izatera pasa baita gaur egun.

Generoaren arabera, emaitzek erakutsi dute ikuspuntu estatistikotik ez dagoela diferentziarik, eta, beraz, esan dezakegu gizonen eta emakumeen artean ez dagoela alderik migrazio-politikak baloratzeko orduan.

## Delinkuentzia, kanporatzeko arrazoia:

hona etorri den norbaitek delituren bat egiten badu, herrialdetik kanpora bidali beharko litzateke (%)





Kanporatzeko arrazoiez galdetuta, Euskal herritarren gehiengoak ez du uste delitu bat egitea etorkinak herrialdetik kanporatzeko arrazoia denik (% 46,8). Hala ere, kanporatzeko arrazoia dela uste dutenen ehunekoak gora egin du, % 36,1era iritsi baita aurten.

Horretaz galdeturik, gizonen % 33,9k eta emakumeen % 38,1ek uste dute kanporatzeko arrazoia dela delinkuentzia, eta, beraz, generoaren arabera alde horiek ez dira esanguratsuak estatistikoki.



## Langabezia, kanporatzeko arrazoia:

Lanera etortzen diren atzerritarrak denboraldi batez langabezian geratuz gero, kanpora bidaliko beharko lirateke (%)




Immigrazioaren ikuspegi funtzionalago eta utilitaristagora itzuli arren, euskal gizartearen gehien-gehiengoak ez du uste langabezian geratzen diren immigranteak kanporatu egin behar direnik (% 80,2). Izan ere, ideia hori gaitzesten duten pertsonen ehunekoak nabarmen gora egin du urteak joan ahala, eta bereziki 2013tik aurrera (+27,8 puntu).

Generoari erreparatuta, zenbakietan alde txiki batzuk dauden arren, ez dira hain handiak estatistikaren ikuspegitik; beraz, esan dezakegu gizonak eta emakumeek antzeko iritzia dutela.

## B) ERREGULARIZATU GABEKO IMMIGRANTEEKIKO POLITIKA

### Zure ustez, zer egin beharko luke Gobernuak erregularizatu gabeko immigranteekin? (%)



- Guztiak erregularizatu, "paperak" eman
- Lana daudenak bakarrik erregularizatu
- Bitartekoak beren herrialdera itzultzeko
- Guztiak kanpora bidali
- Ed/Ee

g10

Gizonak                      Emakumeak

36,2

32,0

Administrazio-egoera irregularran dauden pertsonak erregularizatzeari dagokionez, horren alde dago euskal gizartearen gehiengoa (% 81,5 erregularizatzearen alde dago baldintzekin ala baldintzarik gabe). Horren harira, euskal herritarren ia erdiaren iritziz (% 47,5), lan-kontratua duten pertsonak bakarrik erregularizatu beharko lirateke, eta beste heren batek uste du (% 34,0) egoera irregularran dauden etorkin guztiak erregularizatu behar direla (bizileku-baimenak eman), lana eduki nahiz ez eduki.



Jarrera horrek pisua galdu du, eta murriztu egin da 2022ko urtearekiko batez ere, hura ezohiko urtea izan baitzen Ukrainaren inbasioak eragindako krisi humanitarioaren ondorioz.

Bestalde, % 7,6ren ustez beraien jatorriko herrialdera itzultzeko modua eman beharko litzaieke.

Generoari erreparatuta, estatistikaren ikuspegitik ez dago alde esanguratsurik gizonen eta emakumeen artean, antzeko iritzia baitute immigranteen administrazio-egoerari buruz.

## C) BABESA EDO ASILOA ESKATZEN DUTEN PERTSONEKIKO POLITIKA

### Eta babesa edo asiloa eskatzen duten pertsonekin, zure ustez, zer egitea izango litzateke egokiena?



Ukrainako gerraren ondoriozko gizarte-larrialdia desagertu ondoren, aurreko urteetako kopuruetara itzuli dira euskal herritarren pertzepzioak. Hori nabari da bereziki jarrera irekien kasuan, euskal herritarren erdia izatetik % 37,4 izatera pasa baita, 12,3 puntu inguru gutxiago. Hala ere, joera orokorra irekiagoa da oraindik ere.


Gizartearen % 39,8 harreraren alde dago, baldin eta egiaztatzen bada pertsona horiek egiaz jazartzen ari direla; beste % 15,9k, berriz, kuotetan oinarritutako harreraren alde egiten du.

Inkestatuei pertsonen babesari eta asiloari buruz galdetzean, ez da alde estatistiko esanguratsurik ikusi generoari erreparatuta.

## Asiloa eta babesa eskatzen duten pertsonei buruzko erantzuna (%)

2023

- Erakundeek eta gizarteak erantzun berbera eman behar diete, jatorrizko herrialdea edozein dela ere
- Normala da erakundeek eta gizarteak elkartasun handiagoa erakustea hurbileko herrialdeetatik datozen asilo- eta babes-eskatzailleekin
- Ed/Ee



g12

Gizonak

70,7

Emakumeak

68,7


Asiloa eta babesa eskatzen duten pertsonei buruzko pertzepzio horietan sakonduz, eta arreta erakundeen eta gizartearen erantzunean jarrita, hamar euskal herritarretatik zazpik (% 69,6) uste dute erantzun bera eman beharko litzaiekeela pertsona guztiei, jatorrizko herrialdea edozein dela ere.

Bestalde, % 16k uste du normala dela erakundeek eta gizarteak elkartasun handiagoa agertzea hurbileko herrialdeetatik datozen babes-eskatzailleekiko; % 14,4k, berriz, zalantzak ditu, eta ez du horri buruz iritzi zehatzik eman.

Generoaren arabera erantzun honek nolakoa izan beharko lukeen aztertzen badugu, ikusiko dugu ez dagoela estatistikoki esanguratsuak diren alderik gizonen eta emakumeen artean, iritzi berdina dute.

## D) BAKARRIK DAUDEN ADINGABE ATZERRITARREKIKO POLITIKA


Ziur asko, badakizu batzuetan iristen direla Euskadira **adingabe atzerritarrek**, pertsona heldu batek lagundu gabe; hau da, tutore edo arduradunik gabe. **Zure ustez, zer jarrera izan beharko lukete euskal administrazioek kasu horietan? (%)**




- Haien sorlekura itzultzea
- Ez artatu
- Artatu, kupo bat bete arte, eta gainerakoak autonomia-erkidegoen artean banatu
- Lagundu gabeko adingabe atzerritarrek tutoretzapeko etxebizitzetan edo egoitzetan hartzea
- Ed/Ede

g13

*Haien sorlekura itzultzea*



*Tutoretzapeko etxebizitzetan edo egoitzetan hartzea*




Euskal herritar gehienek iritziz, euskal administrazioek artatu egin behar dituzte senide heldu batek lagundu gabeko etorkin adingabeak, baina ñabardura garrantzitsu hauek eginez: % 40,3ren ustez kupo bat bete arte artatu behar dira, eta % 30,4 dira tutoretzapeko etxebizitzetan edo egoitzetan hartzearen alde daudenak. Azkenik, beste % 23k uste du beren jatorrizko herrialdeetara itzuli beharko liratekeela.

Aurreko urteetako datuekin alderatzen badugu, nabari da, euskal gizartearen gehiengoak arreta ematearen alde badago ere (% 70,7), kopuru horrek behera egin duela, eta gora, berriz, pertsona horiek beren jatorrizko herrialdera itzuli beharko liratekeela uste dutenen kopuruak (+10,2).

Generoari erreparatuta, alde txiki batzuk dauden arren erantzunetan, ez dira esanguratsuak estatistikaren ikuspuntutik, eta esan dezakegu gizonen eta emakumeek antzeko iritzia dutela.

Lehen hitz egin dugu lagun gabeko atzerritar adingabeez. **Adin-nagusitasunera iristen direnean, hau da, 18 urte betetzen dituztenean, zer uste duzu egin beharko luketela euskal administrazioek? (%)**




- Lanik ez badute jatorriko herrialdera itzuli
- Jaramonik ez egin, adin nagusikoak direlako
- Ikasketekin jarraitzeko eta/edo lan bat lortzeko aholku eman
- Etxebizitzarako, ikasketetarako, enplegua lortzeko, egoera administratiboa erregularizatzeko eta abarrerako laguntza-programaren bat ezarri
- Ed/Ee

g14

Jatorriko herrialdera itzuli

Laguntza-programaren bat ezarri




Senide heldu batek lagundu gabeko atzerritar adingabe horiek 18 urte Euskadin betetzean badituzte, kopuru horrek pixka bat behera egin duen arren, hamar pertsonatik bost inguruk uste dute aholku eman beharko litzaiekeela ikasketekin jarraitzeko eta/edo lana lortzeko (% 51,9).

Bestalde, hamar pertsonatik hiru inguru (% 28,5) ados dago laguntza-programaren bat ezartzearekin. % 12,2ren ustez, berriz, lan-munduan sartzearekin lotzen dute EAEn jarraitu ahal izatea.

Estatistikei begiratuta, ez da alde esanguratsurik ikusten gizonen eta emakumeen artean; dauden aldeak zoriaren ondorio dira.

## Senide heldu batek lagundu gabeko adingabe eta gazte atzerritarrei buruzko pertzepzioak (%)



g40a, 40b, 40c, 40d, 40e


Senide heldu batek lagundu gabeko atzerritar adingabe horien egoeran sakonduz, euskal gizartearen ustez (% 82,8), bertakoek baino askoz ere arazo handiagoak dituzte lana aurkitzeko.

Testuinguru horretan, gizartearen gehiengoaren iritziz, erakundeek ahalegina egin behar dute pertsona horiek gizarteratzeko (% 78), edo dituzten eskubideak bermatzeko (% 75,9). Hala ere, herritarrek zalantzak dituzte, eta ez daude erabat seguru, erakundeak kolektibo hori gehiegi babesten ari ote diren galdetu zaienean.


Segurtasun faltari eta delinkuentziari dagokienez, hamar pertsonatik seik uste dute (% 59,5) senide heldu batek lagundu gabeko adingabeak eta gazteak etortzeak eragin txarra izango duela bizikidetzan.

## Senide heldu batek lagundu gabeko adingabe eta gazte atzeritarrei buruzko pertzepzioak (ados, %)


Haien eskubideak bermatu behar dituzte erakundeek




Eragin negatiboa dute herritarren segurtasunean




Lana aurkitzeko arazo gehiago



Erakundeek gehiegi babesten dituzte



Haiek gizarteratzeko bidea jarri behar dugu



Aurtengo datuak iazkoekin alderatzen baditugu, ikusiko dugu, bai gorantz bai beherantz, planteatutako baieztapen guzti-guztiak aldatu egin direla modu batean edo bestean.

Alde batetik, nabarmen handitu da (+31,7 puntu) senide heldu batek lagundu gabeko adingabeak eta gazteak etortzeak segurtasunean eragin negatiboa izango duela uste duten pertsonen ehunekoa, bai eta erakundeek gehiegi babesten dituztela (+19,8) edo lana bilatzeko arazo handiagoak dituztela uste dutenen kopurua ere (+10,6).


Ilido beretik, eta gehiengoaren jarrera izaten jarraitzen badu ere, jaitsi egin da erakundeek pertsona horien eskubideak bermatu behar dituztela uste duten pertsonen kopurua (-9,9 puntu) edo horiek gizarteratzeko bitartekoak jarri behar direla uste dutenen kopurua (-8,6).

g40a, 40b, 40c, 40d, 40e




## Senide heldu batek lagundu gabeko adingabe eta gazte atzerritarrei buruzko pertzepzioak, sexuaren/generoaren arabera (ados, %)


Haien eskubideak bermatu behar dituzte erakundeek




Eragin negatiboa dute herritarren segurtasunean




Lana aurkitzeko arazo gehiago



Erakundeek gehiegi babesten dituzte



Haiek gizarteratzeko bidea jarri behar dugu



g40a, 40b, 40c, 40d, 40e


Senide heldu batek lagundu gabeko adingabe atzerritarrenganako pertzepzioekin jarraituz, generoaren arabera nola banatua dagoen aztertzen badugu, ez dago desberdintasun estatistiko esanguratsurik gizonen eta emakumeen artean, jarrerak antzekoak dira.

8



**Tolerantzia-indizea**

## Tolerantzia-indizea, 2023




Euskal gizartearen tolerantzia-indizea 66,36 puntukoa da 2023an, 2022an baino ia hiru puntu txikiagoa.

Lehen aipatu dugun bezala, 2022ko datu hori oso baldintzatua egon zen Ukrainatik etorritako asilo-eskatzaileen krisi humanitarioaren ondorioz, Errusiaren inbasioagatik beren herrialdetik kanporatuak izan baitziren. Hiru puntu murrizteak zerikusia izan dezake, agian, gerraren kronifikazioarekin, asilo-eskatzaileen gizarte-inpaktua desagertzearekin eta euskal gizartearen gatazka horren aurreko jarreretara itzultzearekin.

Nolanahi ere, eta azken urteotan behin baino gehiagotan esan dugun bezala, ez dago pertsona-talde ugaririk banaketaren muturretan, hau da, euskal gizartearen artean ez dago polarizaziorik gai horretan. Euskal gizarteak kurba arruntaren forma du, hau da, pertsona gutxi muturretan (gehienez 92 puntu eta gutxienez 11 puntu) eta asko, berriz, tarteko lekuetan; horiek argi-itzalak adierazten dituzte atzerritar jatorriko pertsonen iritzietan, pertzepzioetan eta jarreretan.

## Tolerantzia-indizearen bilakaera




Tolerantzia-indizean azken urte hauetan izandako emaitzak oso baldintzatuta eta lotuta egon dira dinamika makroekonomikoekin. Hala, hedapen ekonomikoko garaietan puntuazioak handiagoak izan ohi dira, eta krisi-garaiei, berriz, konfiantza-galera eta atzeritar jatorriko pertsonetako tolerantzia txikiagoa lotzen zaizkie. Lotura hori immigrazioaren eta kultura-aniztasunaren hasierako faseetan dauden gizarteetan gertatzen da, hala nola euskal kasuan.

Hala ere, azken urteotan, bi egoera berezi gertatu dira gure inguruan, eta horiek eragina izan dute edo izaten ari dira euskal gizarteak atzeritar jatorriko pertsonetako dituen jarreretan: COVID-19aren krisia eta Ukrainaren inbasioaren ondorioak. Orain badirudi, gatazka kronifikatu ondoren eta jada gizarte-larrialdiko egoerarik ez dagoenean Ukrainatik asilo eske jendea etortzeagatik, gatazka horren aurreko jarreretara itzuli dela euskal gizartea.

Hurrengo urteetan egiaztatuko da euskal gizartea 65 puntu inguruko balioetan mantenduko den edo COVID-19aren aurreko mailetara (60 puntutik gertuago) itzuliko den.


## Euskal herritarren tolerantzia-mailaren pertzepzioa (Otik 10era)



Galdetutako pertsonok beren buruaz eta euskal gizarteaz egin duten ebaluazioari dagokionez, bi puntuazioak, goikoa zein behekoa, 2023ko Tolerantzia-indizetik hurbil daude: pertsonok beren buruari eman dioten balorazioaren eta euskal gizarte osoari eman diotenaren artean dago indizearen puntuazioa. Ohikoa denez, pertsonok iritzi hobea dugu geure buruaz, besteak epaitzen ditugunean baino.

Nolanahi ere, pertsonok beren buruarekiko duten ikuspuntu kognitiboak, atzerritar jatorriko pertsonetikiko xenofobia- edo tolerantzia-maila neurtzean ohikoa izaten den moduan, ez die galarazten errealitatearen, beren jarreraren eta euskal gizartearen azterketa nahiko doia egitea; izan ere, haien balorazio subjektiboa nahiko bat dator indizearen bidez egindako balorazioarekin.

## Puntuazioen bilakaera hamar arloetan, 2008-2023



Oro har, 2022ko datuen aldean, indize globalaren jaitsierak beherakada txikiak eragin ditu aztertutako ia dimentsio edo arlo guztietan.

Bi esparrutan baino ez du izan euskal gizarteak hobekuntza txiki bat, oro har atzerakada izan duen arren: immigrazioa arazotzat hartzean eta bizikidetzaren ereduak. Lehenengo kasuan, finkatu egin da migrazioaren kontua euskal gizartearentzat arazoa ez delako pertzepzio orokorra eta gehiengoarena; eta bigarreanean, bizikidetzaren eredu inklusiboagoetarantz eta kulturartekoagoetarantz aurrera egiteko itzaropenak daude.

## Tolerantzia-indizearekin lotutako aldagaiak, 2023

### TOLERANTZIA-ATALASE

#### TXIKIENA

#### DUTEN PERTSONEN PROFILA

### TOLERANTZIA-ATALASE

#### HANDIENA

#### DUTEN PERTSONEN PROFILA

	Aldagaia	Esang.	
65 urte eta gehiago	Adina	.000	18-44 urte
5.000-150.000 biztanle bitarteko udalerriak	Habitata	.002	5.000 pertsona arteko udalerriak
Lehen mailako ikasketak	Ikasketak	.000	Unibertsitate-ikasketak
Katoliko praktikanteak	Erlijioa	.000	Agnostikoak, ateok eta beste erlijio batzuk
Erdaldunak	Hizkuntza	.000	Euskaldunak
Nazionalista espainiarrak	Abertzaletasuna	.000	Euskal nazionalistak eta ez-nazionalistak
Batez ere espainiar sentitzen direnak	Identitate-sentimendua	.000	Batez ere euskaldun edo euskaldun-espainiar
Eskuina edo zentro-eskuina	Ideologia	.000	Ezkerra edo zentro-ekzerra
Hilean 1.000 € gehienez	Diru-sarrerak	.000	Hilean 1.800 € edo gehiago
Bere egoerarekin gustura ez daudenak	Egoera ekonomikoa	.001	Bere egoerarekin gustura daudenak
Etxeko lanetan aritutakoak	Lanbidea	.000	Ikasleak eta aktiboak
Estatus baxua edo ertaina	Estatua	.000	Estatus altua
Ezkorrak eta axolagabeak	Baikortasuna	.000	Baikorrak
Aurreikuspen txarrak	Etorkizuna	.000	Aurreikuspen onak
Etorकिनak	Auzoa	.000	Bertakoak
Inolako hartu-emanik ez	Interakzio publikoa	.000	Hartu-eman handia edo nolabaitekoa
Inolako hartu-emanik ez	Aisialdiko interakzioa	.000	Hartu-eman handia edo nolabaitekoa


Urteotan ohikoa denez, aldagai soziodemografiko, politiko-ideologiko, ekonomiko edo psikosozial gehienek bi aldaerako harremanean bereizten dituzte jarrerak (sexuaren aldagaia eta atzerritar jatorriko pertsonekin eremu pribatuan duten harremana izan ezik). Nolanahi ere, atzerritar jatorriko pertsonetikiko tolerantzia handiagoa edo txikiagoa izatearen atzean dauden faktoreek zerikusi handiagoa dute banakako aldeekin kategorizazio sozialetik lortutakoekin baino.

## Segmentazio-zuhaitza eta euskal herritarren tipologiak

2023an ideologia eta estratifikazio soziala dira gaitasun auresale handiena duten aldagaiak. Horietan lehenengoa izan ezik, etorkizunera begirako itxaropenak dira (sig. 0.000) pertsona baten jarrera globala ondoen auresaten duen faktorea.

Jarrera gutxi-asko sendoa izatea eta etorkizunari aurre egiteko segurtasun handiagoa edo txikiagoa izatea da atzerritar jatorriko pertsonetikiko jarrera tolerantea izatearekin lotura handiena duen aldagaia.

Bigarren mailan bereizleak dira ideologia (sig. 0.002) eta nortasun-sentimendua (sig. 0.000) aldagaiak; hirugarren mailan aisialdiko harremana (sig. 0.000), euskaraz hitz egitea (sig. 0.005) eta sexua (sig. 0.007); eta laugarren mailan, berriz, estatusa (sig. 0.002).





## Euskal herritarren tipologiak

### Batez bestekotik gorako puntuazioak dituzten biztanle-segmentuak:

- 1. mota.** Etorkizunari begira itxaropen onak dituzten pertsonak, euskal nortasuna dutenak, atzerritar jatorriko pertsonekin aisialdian harreman handia edo noizbehinka dutenak, eta goiko eta erdi-goiko estatusa dutenak: 76,80 puntu (laginaren % 10,7 dira).
- 2. mota.** Etorkizunari begira itxaropen onak dituzten pertsonak, euskal nortasuna dutenak, atzerritar jatorriko pertsonekin aisialdian harreman handia edo noizbehinka dutenak, eta beheko edo erdi-beheko estatusa dutenak: 73,77 puntu (laginaren % 7,8 dira).
- 3. mota.** Etorkizunari begira itxaropen onak dituzten pertsonak, euskal nortasuna dutenak, atzerritar jatorriko pertsonekin aisialdian harreman handia edo noizbehinka dutenak, eta erdiko estatusa dutenak: 70,48 puntu (laginaren % 10,9 dira).
- 4. mota.** Etorkizunari begira itxaropen normalak, ez bereziki onak ez txarrak, dituzten gizonak, ideologiaz ezkerrekoak edo ezker-zentrokoak: 68,85 puntu (laginaren % 8,2 dira).
- 5. mota.** Etorkizunari begira itxaropen onak dituzten pertsonak, euskal nortasuna dutenak, atzerritar jatorriko pertsonekin aisialdian inolako harremanik ez dutenak, eta goiko edo erdi-goiko estatusa dutenak: 68,44 puntu (laginaren % 15,3 dira).
- 6. mota.** Etorkizunari begira itxaropen onak dituzten pertsonak, euskal-espainiar edo espainiar nortasuna dutenak eta euskaraz hitz egiten dutenak: 68,38 puntu (laginaren % 8,3 dira).

### Batez bestekotik beherako puntuazioak dituzten biztanle-segmentuak:

- 7. mota.** Etorkizunari begira itxaropen normalak, ez bereziki onak ez txarrak, dituzten emakumeak eta ideologiaz ezkerrekoak edo ezker-zentrokoak: 62,70 puntu (laginaren % 10,5 dira).
- 8. mota.** Etorkizunari begira itxaropen onak dituzten pertsonak, euskal-espainiar edo espainiar nortasuna dutenak eta euskaraz hitz egiten ez dutenak: 60,70 puntu (laginaren % 8,3 dira).
- 9. mota.** Etorkizunari begira itxaropen txarrak dituzten pertsonak: 56,19 puntu (laginaren % 11,9 dira).
- 10. mota.** Etorkizunari begira itxaropen normalak, ez bereziki onak ez txarrak, dituzten pertsonak eta ideologiaz zentrokoak edo eskuinekoak: 56,46 puntu (laginaren % 8,0 dira).


Oro har, aztertutako aldagaiek bariantza osoaren (hau da, euskal gizarteko jarrera desberdinen) % 26,97 azaldu dezakete. Gainerakoa banakakoen ezaugarrien, nortasunaren edo testuinguruaren mende dago.

## Azken pilaketa-zentroak, 2023

	Toleranteen taldea	Anbibalenteen taldea	Uzkurren taldea
Bolumenaren pertzepzioa	6,02	4,72	2,74
Arazoaren pertzepzioa	9,85	9,67	9,25
Eragina ekonomian	7,77	6,82	4,47
Eragina euskal gizartean	7,73	6,91	4,30
Immigrazio-politika	8,18	6,24	4,99
Erabateko eraginak	7,40	6,01	4,15
Elkarbizitza ereduak	5,07	3,73	1,77
Estereotipoak	7,04	5,00	2,85
Eskubideei heltzea	9,01	7,20	4,64
Harremanetarako espazioak	8,74	7,26	4,61


Aurreko urteetan bezala, 2023an ere hiru multzo handitan sailkatu dugu euskal gizartea: toleranteen taldea (beti bezala puntuaziorik onenak ditu hamar arloetan); anbibalenteen taldea (tarteko posizioetan dago); eta uzkurren taldea (puntuazio eta posizio okerrenak ditu aztertutako hamar arloetan).

## Taldeen puntuazioa hamar arloetan (azken zentroak)



Hiru talde horietako bakoitzak jarrera nabarmen desberdina du hamar arloetan, immigrazioa arazotzat hartzean izan ezik. Arlo horretan, anbibalenteen taldea eta toleranteen taldea berdinak dira: ez dute immigrazioa arazotzat hartzen. Gainera, uzakurren taldeak, immigrazioa arazotzat jotzearen esparruan puntuazio txikixeagoa izan arren, hartan izan du guztietan puntuazio handiena; hau da, ez du immigrazioa lehentasunezko arazotzat jotzen. Laburbilduz, euskal gizarteak ez du immigrazioa arazotzat hartzen.


## Taldeen puntuazioak Tolerantzia-indizean, 2023



Euskal gizartean dauden hiru talde handiek (toleranteek, anibalenteek eta uzkurrek) oso jarrera desberdinak dituzte (puntuazio desberdinak estatistiketan). Toleranteen taldeak 76,81 puntu lortu ditu batez beste, anibalenteen taldeak 63,55 puntu, eta uzkurren taldea, berriz, eskalaren erdiko puntura iritsi gabe geratu da, 43,77 punturekin.

2022ko datuekin alderatuta, oro har, taldeek ezer gutxi aldatu dituzte beren jarrerak: toleranteen taldeak eta uzkurren taldeak puntuazio txikixeagoa izan dute (bi kasuetan ez da puntu bat ere jaitsi), eta anibalenteen taldea 2,5 puntu baino gehixeago jaitsi da.


## Talde handien puntuazioen bilakaera Tolerantzia-indizean, 2008-2023



Azken urteetako bilakaera aztertuz gero, ikusiko dugu tolerantteen taldea pixkanaka posizioak hobetzen joan dela azken urteetan, 75 puntutik gorako posizioak finkatu baititu. Antzeko zerbait gertatzen da anbibalenteen taldearekin ere, 60 eta 65 puntu bitarteko posizioak finkatu baititu. Bestalde, uzkurren taldeak ez du bilakaera hain konstantea, zerrahortzak ageri baititu, azken urteetan 40-45 puntu artean finkatu bada ere.

Nolanahi ere, taldeen bolumenak izan duen bilakaera aztertu behar da, eboluzioaren ikuspegi doia izateko. Hurrengo orrialdeetan ikusiko dugu.


## Taldeen neurria, 2023 (%)



2023an, toleranteen taldean sartzen da euskal gizartearen erdia inguru (% 46,66), uzkurren taldean baino askoz ere gehiago (% 17,17). Bestalde, anbibalenteen taldean biltzen da galdetutako hamar lagunetik lau inguru (% 36,17).

2022ko datuekin alderatuta, toleranteen taldeak ia ez du aldaketarik izan, ez bolumenean, ez posizioetan; anbibalenteen taldeak, ordea, kide batzuk galdu ditu (horiek uzkurren taldera joan dira), 5 puntu baino pixka bat gehiago, eta, gainera, posizioak okertu ditu, nahiz eta bere kide intoleranteenak galdu; uzkurren taldeak, bestalde, 6,5 puntu inguru irabazi ditu, anbibalenteen taldeko intoleranteenak, baina horregatik ez ditu posizioak hobetu, baizik eta 2022an izan zuen puntuazioari eutsi dio.

## Talde handien neurriaren bilakaera, 2008-2023 (%)




Taldeen bilakaerari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu toleranteen taldea sendotzen ari dela, euskal gizartearen % 35-45 inguru hartzen baitu.

Bestalde, anbibalenteen taldea da historikoki kolektibo jendetsuena, euskal biztanleen % 40 eta % 50 artean baitabil, nahiz eta aurten bolumena murriztu duen. Gogorarazi behar da talde hori hobetzen ari dela jatorri atzeritarreko pertsonetako jarreretan eta posizioetan (49,46 puntu izan zituen 2009an eta 63,55 puntu ditu gaur egun), oraindik ere argi-itzalen artean mugitzen ari bada ere.

Azkenik, uzkurren taldeak behera egin du azken urteetan, % 20tik behera baitago. Gainera, badirudi 40-45 puntu inguruan finkatu dituela bere posizioak.

## Talde handien ezaugarrien korrespondentzia sinpleen analisi faktoriala, 2023

Talde batekin edo beste batekin nabarmen lotuta dauden ezaugarriak dagokienez (toleranteen taldearen, anbibalenteen taldearen eta uzkurren taldearen profil ohikoenak adieraz ditzakete horiek), ez dugu aldaketa handirik nabaritu aurreko txostenetan deskribatu ditugunekin alderatuta.





## Talde handien ezaugarrien korrespondentzia sinpleen analisi faktoriala, 2023

**Toleranteen taldea:** beste taldeetan baino ugariago dira 18 eta 44 urte arteko pertsonak, 5.000 biztanle arteko udalerrietan bizi dira, unibertsitate-ikasketak dituzte, euskaldunak dira, agnostikoak, ateoak edo beste erlijio batzuetakoak, ideologiaz ezkerrekoak, euskal abertzale subiranistak dira, sentimenduz espainiar baino euskaldunago, gustura daude beren egoera ekonomikoarekin, 2.500 euro baino gehiagoko diru-sarrerara garbiak dituzte hilean, lan egiten dute edo ikasleak dira, goiko estatusa dute, baikorrak direla diote, etorkizunari begira itxaropen onak dituzte, atzerritar jatorriko pertsona gutxi dagoen auzoetan bizi dira, etorkinekin harreman handia dute eremu publikoan eta noizbehinka edo askotan aisialdian.

**Anbibalenteen taldea:** (toleranteen taldeko ezaugarri batzuk ditu eta uzkurren taldeko beste batzuk): beste taldeetan baino ugariago dira 45 urtetik gorako pertsonak, lehen edo bigarren mailako ikasketak dituzte, ez dute euskaraz hitz egiten, katoliko ez praktikatzaileak dira, ideologiaz zentrotakoak edo zentro-ekzkerrekoak, abertzale moderatuak edo ez abertzaleak, sentimenduz euskaldun bezain espainiar, beren egoera ekonomikoarekiko ez daude ez gustura ez kontrakoa, 1.801 eta 2.500 euro bitarteko diru-sarrerara garbiak dituzte, erretiroa hartua dute, erdiko edo beheko estatusa dute, batez ere pentsiodunak dira, ezkorrek dira

baikorrak baino gehiago, etorkizunari begira itxaropen normalak dituzte, atzerritar jatorriko pertsona gutxi dagoen auzoetan bizi dira, etorkinekin harreman txikia dute eremu publikoan eta ez dute inolako hartu-emanik aisialdian.

**Uzkurren taldea:** beste taldeetan baino ugariago dira 64 urtetik gorakoak, 5.000 eta 150.000 biztanle arteko udalerrietan bizi dira, lehen edo bigarren mailako ikasketak dituzte, ez dute euskaraz hitz egiten, katolikoak dira, praktikatzaileak zein ez, ideologiaz eskuinekoak edo zentrotakoak, nazionalista espainiarrak direla diote, sentimenduz euskaldun baino espainiarrago edo euskaldun bezain espainiar, ez daude gustura beren egungo egoera ekonomikoarekin, 1.800 euro baino gutxiagoko diru-sarrerara garbiak dituzte, erretiroa hartua dute edo etxeko zaintzak egiteaz arduratzen dira, beheko estatusa dute, ezkorrek dira, etorkizunari begira itxaropen normalak edo txarrak dituzte, atzerritar jatorriko pertsonak dauden auzoetan bizi dira, eta etorkinekin ez dute inolako hartu-emanik, ez eremu publikoan, ez aisialdian.

# 9



## Ondorioak

Joan den urtean, honako hau esan genuen kategorikoki: "Gure ustez, euskal gizarteak ukrainarren etorreraren aurrean izandako erantzun positiboa loturik doa atzerritar jatorriko pertsonenganako jarrera hobearekin".

Ukrainako gerraren kronifikazioak eta asilo-eskariaren egonkortzeak eragindako gizarte-larrialdia desagertu ondoren, 2021eko mailara itzuli dira atzerritar jatorriko pertsonetikiko jarrerei eta pertzepzioei begira euskal gizarteak dituen jarrera horiek.

## Horrez gain, ondorio hauek nabarmendu ditzakegu:

1. Euskal gizarteak arazo larriak ditu, batik bat ekonomiaren arlokoak, eta migrazioa ez dago horien artean: ez da inoiz arazotzat hartu, eta orain 2023an ere ez.
2. Euskal gizarteak atzerritar jatorriko pertsonetikiko duen tolerantzia-maila, haiekiko dituzten jarrerak eta iritziak laburbiltzen dituena, 2021eko balioetara itzuli da ukrainarren asilo-eskaera egonkortu ondoren. 66,36 puntu horiek erakusten dute jarrera logikoagoetara itzuli dela.
3. Euskal gizartearen kezkarik larrienak gure ongizatearentzako mehatxuak dira oraindik ere, eta horiek agerian geratzen dira nagusi diren aurreiritzietan edo "zurrumuruetan". Hala eta guztiz ere, euskal gizarteak baztertu egiten du bertakoentzat bakarrik den babes sozialeko sistema. Hezkuntza publikoa eta osasuna pertsona guztientzako eskubide unibertsalak direla uste du.
4. Jarrera positiboa nabari da atzerriko immigrazioarekiko estereotipo faltsuen eta negatiboen aurrean: gehiago dira estereotipo horiek baztertzen dituztenak haiekin ados daudenak baino.
5. Datuak urtetik urtera hobetzen ari diren arren, atzerritar jatorriko pertsonen zenbait kolektiboren estigmatizazioa erakusten dute zifrek oraindik ere, batez ere Marokotik, Aljeriatik edo Magrebetik datozenengana, begikotasun txikiagoa eta mesfidantza handiagoa jasotzen baitute eguneroko elkarbizitzan. Islamarekiko iritzia ere ez da ona.
6. Euskal gizarteak gero eta gehiago ohartzen da immigrazioa egiturazko prozesu soziala dela, dinamika globalago baten barruan. Datuen arabera, badirudi gero eta onartuago dagoela EAEn bizi garen pertsona guztiok, era batean edo bestean, gure ongizatearen alde egin dezakegula, bai eta tresnak ezartzen lagundu dezakegula ere, denok benetan parte hartu ahal izan dezagun gure eskubideak eta betebeharrak finkatzen dituen zuzenbidezko estatuan.



ikus  
pegi

Immigrazioaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de Inmigración

## BAROMETROA 2023

### JATORRI ATZERRITARRA DUTEN BIZTANLEEN INGURUKO PERTZEPZIOAK ETA JARRERAK

Galdeketa-zenbakia	
Data (eguna-hilabetea-urtea)	
Udalerrria	
Probintzia	
Inkestagilea	

Egun on / Arratsalde on. IKUSPEGI Immigrazioaren Euskal Behatokia immigrazioarekiko euskal herritarren iritzia buruzko ikerketa egiten ari da. Horrenbestez, zure laguntza preziatuaren beharra dugu, galdera-sorta bati erantzuteko. Zure erantzunak anonimatu eta sekretupean gordeko direla bermatzen du Unibertsitateak; izan ere, erantzunak multzoan bakarrik aztertuko dira. Kontuan hartu ez dagoela erantzun zuzenik edo okerrik, ez da azterketa, immigrazioarekin zerikusia duten zenbait galderari buruz zure benetako iritzia jakin nahi dugu bakar-bakarrik.

1. Zure ustez, gaur egun, zein dira Euskadin ditugun **3 arazo nagusiak?** (Gehienez ere 3 erantzun: bat-bateko erantzuna)

	1º	2º	3º
Langabezia	1	1	1
Herritarren segurtasun eza	2	2	2
Osasuna, osasun-sistema	3	3	3
Etxebizitza	4	4	4
Arazo ekonomikoak	5	5	5
Enpleguarekin lotutako arazoak (prekarietatea, soldata txikiak)	6	6	6
Korruptzioa eta iruzurra	7	7	7
Pentsioak	8	8	8
Politikariak, alderdi politikoak, gobernuak	9	9	9
Arazo sozialak	10	10	10
Immigrazioa	11	11	11
Emakumeen aurkako indarkeria	12	12	12
Hezkuntza	13	13	13
Diskriminazioa	14	14	14
Beste erantzun batzuk	15	15	15
Bat ere ez	16	16	16
Ez daki / Ez du erantzuten	0	0	0

2. Txartel honetan ageri diren arazoetatik (1. txartela ERAKUTSI) zein dira, zure iritziz, Euskadiko **3 arazo garrantzitsuenak?** (IRAKURRI ERANTZUN GUZTIAK ozenki: 3 erantzun gehienez)

	1º	2º	3º
Delinkuentzia	1	1	1
Egoera ekonomikoa	2	2	2
Prezioen garestitzea / Inflazioa / Bizi-kostua	3	3	3
Zergak	4	4	4
Langabezia	5	5	5
Terrorismoa	6	6	6
Etxebizitza	7	7	7
Zor publikoa	8	8	8
Immigrazioa	9	9	9
Osasuna eta gizarte-segurtasuna	10	10	10
Hezkuntza-sistema	11	11	11
Pentsioak	12	12	12
Ingurumena, klima eta energiari buruzko gaiak	13	13	13
Diskriminazioa	14	14	14
Ed/Ede	0	0	0

3. Euskadin bizi diren **jatorri atzerritarreko pertsonen kopurua**, zure iritziz,... (2. txartela ERAKUTSI)?

Handiegia da	1
Nahikoa da	2
Egokia da	3
Txikia da	4
Ez da nahikoa	5
Ez daki / Ez du erantzuten	0

4. Euskadin bizi diren 100 pertsonetatik **zenbat** dira, zure ustez, **jatorri atzerritarrekoak** (alegia, Espainiatik kanpoko herrialdeetatik etorriak)? (ED/EE=99)

--

5. Nik esango banizu Euskadin bizi diren pertsonen **%11 gutxi gorabehera jatorri atzerritarrekoak** direla, berdin pentsatzen al duzu edo... (2. txartela ERAKUTSI)?

Handiegia da	1
Nahikoa da	2
Egokia da	3
Txikia da	4
Ez da nahikoa	5
Ez daki / Ez du erantzuten	0

6. Txartel hau erabilia (3. txartela ERAKUTSI), esan iezadazu **zenbateraino zauden ados edo ez** esaldi horietan adierazten denarekin (1= erabat ados; 2= ados; 3 = ez ados ez kontra; 4 = kontra; 5 =erabat kontra; 6 = ez daki/ez du erantzuten):

	EA	A	EA EK	K	EK	ED EE
a) Jendea bizitzera eta lan egitera etortzen denez, oro har, soldaten zenbatekoak behera egiten du.	1	2	3	4	5	0
b) Ikasle immigranteek jaitsi egiten dute eskoletako hezkuntza-maila	1	2	3	4	5	0
c) Etorkinak behar ditugu gure ekonomiaren sektore batzuetan lan egiteko	1	2	3	4	5	0
d) Lanera etortzen diren atzerritarrak denboraldi batez langabezian geratuz gero, kanpora bidali beharko liriteke.	1	2	3	4	5	0

	EA	A	E A E K	K	EK	ED EE
e) Etorrinei esker, ekonomiak hobera egiten du, bertakoez nahi ez dituzten lanpostuak betetzen dituztelako.	1	2	3	4	5	0
f) Hona etorri den norbaitek delituren bat egiten badu, herrialdeetik kanpora bidali beharko litzateke.	1	2	3	4	5	0
g) Etorrinen presentziak segurtasun falta eta delinkuentzia eragiten ditu	1	2	3	4	5	0
h) Immigranteek lana kentzen digute	1	2	3	4	5	0
i) Immigrazioak handitu egiten ditu matxismoa eta genero-indarkeria	1	2	3	4	5	0
j) Immigranteek ez dute integratu nahi	1	2	3	4	5	0
k) Etorrinek neurritz kanpo erabiltzen dute EAEko osasun-sistema eta kolapsatu egiten dituzte larrialdi-zerbitzuak.	1	2	3	4	5	0
l) Etorrinek babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) eskuratzen dituzte.	1	2	3	4	5	0
m) Etorrinek espazio publikoak hartzen dituzte, neurritz kanpo eta gaizki erabiltzen dituzte.	1	2	3	4	5	0
n) Pertsona immigranteek ez lukete inolaz ere jaso behar diru-sarrerak bermatzeko errentarik: hemengo pertsonentzat soilik izan behar lirateke halako laguntzak.	1	2	3	4	5	0

7. Oti 10era bitarteko eskala batean (0 oso txarra, eta 10, bikaina), zenbat puntu emango zenizkioke zure udalerrian edo auzoan bertakoen eta atzerritarren artean dagoen **bizikidetzeta eta harreman-giroari**?

Oso txarra	Bikaina										Ed/Ee
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99

8. Euskal herritarren eta atzerriko jendearen arteko **harremanak**, zure ustez, hobera egin du, txarrera egin du, edo duela urtebete bezalakoa da?

Hobera egin du	1
Berdin jarraitzen du	2
Txarrera egin du	3
Ez daki / Ez du erantzuten	0

9. Zure ustez, zer **politika-mota** litzateke egokiena immigranteen kasurako?

Inolako lege-trabarrak gabe sartzzen uztea	1
Lan-kontratua dutenei bakarrik sartzzen uztea	2
Legezko beste baldintza batzuk betetzen dituzten pertsonen sartzzen uztea: familia berriz biltzea, ikasleak, errefuxiatuak...	3
Erabat debekatzea etorri atzerritarren sartzera	4
Ed/Ede	0

10. Zure ustez, zer egin beharko luke Gobernuak **erregularizatu gabeko immigranteekin**? (EZ AIPATU: bat-bateko erantzuna)

Guztiak erregularizatu, "paperak" eman	1
Lana dutenak bakarrik erregularizatu	2
Bitartekoak eman guztiak beren herrialdera itzultzeko	3
Guztiak kanpora bidali	4
Ed/Ede	0

11. Eta **babesa edo asiloa** eskatzen duten pertsonekin, zure ustez, zer egitea izango litzateke egokiena? (EZ AIPATU: bat-bateko erantzuna)

Mugarik gabe hartu	1
Hartu, ihesi dabilzala egiaztatzen bada	2
Hartu, baina urtean kopuru jakin bat baino ez	3
Ez hartu, inola ere	4
Ed/Ede	0

12. Asilo- eta babes-eskatzaileri dagokienez, zure ustez: (ERAKUTSI 4. txartela)

Erakundeek eta gizarteak erantzun berbera eman behar diete, jatorri-zko herrialdea edozein dela ere	1
Normala da erakundeek eta gizarteak elkartasun handiagoa erakustea hurbileko herrialdeetatik datozen asilo- eta babes-eskatzailerekin	2
Ed/Ede	0

13. Ziur asko, badakizu batzuetan **adingabeak** iristen direla atzerritik Euskadira, **senide edo pertsona heldu batek lagundu gabe**; hau da, tutore edo arduradunik gabe. Zure ustez, **zer jarrera** izan beharko lukete **euskal administrazioek** kasu horietan? ERAKUTSI 5 txartela eta IRAKURRI 4 ERAN-TZUNAK)

Haien sorlekura itzultzea	1
Ez artatu	2
Artatu, kupo bat bete arte, eta gainerakoak autonomia-erkidegoen artean banatu	3
Bidailerik gabeko adingabe atzerritarren tutoretzapeko etxebizitzetan edo egoitzetan hartzea	4
Ed/Ede	0

14. Adingabe horiek adin-nagusitasunera iristen direnean, hau da, 18 urte betetzen dituztenean, zer uste duzu egin beharko luketela **euskal administrazioek**? (6. txartela ERAKUTSI)

Lanik ez badute, jatorriko herrialdera itzuli	1
Jaramonik ez egin, adin nagusikoak direlako	2
Ikasketekin jarraitzeko eta/edo lan bat lortzeko aholku eman	3
Etxebizitzarako, ikasketetarako, enplegua lortzeko, egoera administratiboa erregularizatzeko eta abarrerako laguntza-programaren bat ezarri	4
Ed/Ee	0

15. Beste kultura eta erlijio batzuetako pertsonak EAera etortzeak bestelako **janzkera-ohiturak** sortzea eragin du. Ohitura horietako batzuei buruz zer iritzi duzun jakin nahi genuke. Horretarako, zenbait irudi erakutsiko dizkizut, eta gure gizartearen **egokiak iruditzen zaizkizun ala ez** esatea nahi nuke (7A, 7B, 7C, 7D, 7E, 7F eta 7G txartelak BANAKA ERAKUTSI)

	Egokia da	Ez da egokia	Ed/Ee
a) Hijaba	1	2	0
b) Txadorra	1	2	0
c) Txilaba	1	2	0
d) Nikaba	1	2	0
e) Tunika	1	2	0
f) Burka	1	2	0
g) Burkinia	1	2	0

**16.** Orain, zure eta jatorri atzerritarreko pertsonen arteko **harreman** posible batzuk aipatuko dizkizut. Mesedez, esan kasu bakoitzean ea harreman hori onartuko zenukeen, saihesten saiatuko zinatekeen edo gaitzetsi egingo zenukeen (ERAKUTSI 8. txartela)

	O	S	G	Segun	Ed/Ee
a) Jatorri atzerritarreko pertsona asko bizi diren auzo edo bloke berean bizitzea	1	2	3	4	0
b) Jatorri atzerritarreko pertsonekin lan egitea edo ikastea	1	2	3	4	0
c) Jatorri atzerritarreko pertsona bat zure laneko nagusia izatea	1	2	3	4	0
d) Zure seme-alabek jatorri atzerritarreko lagunak eramatea etxera	1	2	3	4	0
e) Seme-alabak jatorri atzerritarreko pertsonen seme-alaba asko dauden eskola batera eramatea	1	2	3	4	0
f) Zure semearen/alabaren neska-laguna/mutil-laguna edo bikoteakidea jatorriz atzerritarra izatea	1	2	3	4	0

**17.** Orain, bertakoek dituzten zenbait eskubide aipatuko ditugu. Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek ere egoera beretan **izan behar lituzkete eskubide horiek?** (irakurri eskubideak eta 9. txartela ERAKUTSI):

	Denek	Legez daudenek	Inork ez	ED
a) Seme-alabentzako hezkuntza	1	2	3	0
b) Osasun-zerbitzua	1	2	3	0
c) Gizarte-laguntza: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta, GLL...	1	2	3	0
d) Babes ofizialeko etxebizitza	1	2	3	0
e) Senide gertukoena ekartzea	1	2	3	0
f) Bozkatzeko eskubidea	1	2	3	0
g) Zerbitzu juridikoa	1	2	3	0

**18.** Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek **doan** izan beharko lituzkete zerbitzu hauek (irakurri zerbitzuak irakurri eta 9. txartela ERAKUTSI):

	Denek	Legez daudenek	Inork ez	ED
a) Lanbide-heziketako ikastaroak	1	2	3	0
b) Gaztelaniako eskolak	1	2	3	0
c) Euskarako eskolak	1	2	3	0
d) Jatorrizko hizkuntzako eskolak	1	2	3	0

**19.** Pertsona batzuen iritziz, "**osasun-arreta, gizarte-laguntzak, babes ofizialeko etxebizitzak** eta abar eskuratzeko, bertako jendeak lehenasuna izan behar du, immigranteen aurretik"; eta beste batzuen iritziz, berriz, "pertsona guztiok izan behar ditugu eskubide eta betebeharrak, bertakoak edo immigranteak izan". Zuk zer iritzi duzu horri buruz? (10. txartela ERAKUTSI)

Osasun-arreta, gizarte-laguntzak, babes ofizialeko etxebizitzak eta abar eskuratzeko, bertako jendeak lehenasuna izan behar du, immigranteen aurretik	1
Pertsona guztiok izan behar ditugu eskubide eta betebeharrak, bertakoak edo immigranteak izan	2
Ed/Ee	0

**20. Ondo edo gaizki** iruditzen zaizu **jatorri atzerritarreko pertsonen...** (banan-banan IRAKURRI)?

	Ondo	Berdin	Gaizki	Ed/Ee
a) Haien dendak irekitzea	1	2	3	0
b) Haien artean beraien hizkuntza erabiltzea	1	2	3	0
c) Jatorrizko herrialdean bezala jantzea	1	2	3	0
d) Berariako elikadura-dendak izatea	1	2	3	0
e) Haien erlijioetako tenpluak eraikitzea	1	2	3	0
f) Haien ikastetxe pribatuak izatea	1	2	3	0
g) Plaza eta espazio publikoak hartzea	1	2	3	0
h) Sukaldaritza exotikoa edo atzerriko sukaldaritza duten jatetxeak irekitzea	1	2	3	0

**21.** Txartel hau erabilita (3. txartela ERAKUTSI), esan iezadazu **zenbateraino zauden ados edo ez** esaldi horietan adierazten denarekin (1 = erabat ados; 2 = ados; 3 = ez ados ez kontra; 4 = kontra; 5 = erabat kontra; 6 = ez daki):

	EA	A	EZ A EZ K	K	EK	ED
a) Euskadin bizikidetzat hobetzeko, hemengoek ahaleginu beharko lukete etorkinen ohiturak eta usadioak ezagutzen eta horietara egokitzen.	1	2	3	4	5	0
b) Euskal gizartearentzat hobe da bertan bizi garen guztiok ohitura eta usadio berberak izatea.	1	2	3	4	5	0
c) Euskal gizartearentzat hobe da guzti-guztiok, immigranteek eta bertakoek, harrera-herrialdeko hizkuntzak hitz egitea.	1	2	3	4	5	0
d) Pertsona etorkinek onura handiegia lortzen dute gizarte-babesaren sistematik.	1	2	3	4	5	0
e) Immigranteen erlijio-jarduerak arriskuan jartzen dute gure bizimodua.	1	2	3	4	5	0
f) Etorkinek zerga gutxiago ordaintzen dute gero jasotzen dutena baino.	1	2	3	4	5	0
g) Euskadin bizikidetzat hobetzeko, immigranteek gure ohiturak eta usadioak hartzen ahalegin du beharko lirateke.	1	2	3	4	5	0
h) Beste talde etnikoetako etorkin atzerritarrek Euskadiko bizitza kulturala aberasten dute.	1	2	3	4	5	0
i) Erabat onartuak izateko, etorkinek gure legediarekin bat ez datozen beren kulturaren edo erlijioaren alderdiei uko egin behar diete.	1	2	3	4	5	0
j) Etorkinen presentziak Euskadin langa-bezia handiagoa izatea dakar.	1	2	3	4	5	0
k) Europako populazioaren zahartzeak eragindako arazoak konpon ditzakete Europara datozen etorkinek.	1	2	3	4	5	0
l) Bizikidetzat hobetzeko, guztiok egin behar dugu ahalegin bat, bai etorkinek, bai hemengoek ere.	1	2	3	4	5	0
m) Immigranteak gizarte-laguntzei esker bizi dira eta gehiegi erabiltzen dituzte.	1	2	3	4	5	0

**22.** Esan iezadazu, mesedez, 0tik 10era bitarteko puntuazioa duzula, zenbatekoa den munduko herrialde edo eskualde hauetako pertsonenganako sentitzen duzun sinpatia; kontuan izan, 0 sinpatia eza dela eta 10 **sinpatia** handia (11. txartela ERAKUTSI).

	Sinpatia eza										Sinpatia handia	Ed
a) Mendebaldeko Europar Batasuna	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
b) Errumania	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
c) Brasil	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
d) Afrika beltza, Saharaz hegoaldekoa	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
e) Bolivia	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
f) Maroko, Aljeria, Magreb	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
g) Ameriketako Estatu Batuak	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
h) Kolonia, Ekuador, Peru	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
i) Argentina	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
j) Pakistan, Nepal, Bangladesh	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
k) Txina	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
l) Paraguai	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
m) Nikaragua, Honduras, Guatemala (Ertamerika)	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99

23. Hurrengo 5 urteetako egoerari begira, **immigrazioak EAEn**, zure ustez, behera egingo du, gora egingo du edo oraingoa bezalako izango da gutxi gorabehera?

Behera egingo du	1
Berdintsua izango da	2
Gora egingo du	3
Ed/Ee	0

24. Demagun, **etorkizunean** ere etorkinek EAera etortzen jarraitzen dutela. Zure ustez, **nongoa** izango da etorkin multzo handiena? Eta bigarren etorkin multzo handiena? Eta hirugarrena? (EZ IRAKURRI, gehienez 3 erantzun)

	1º	2º	3º
Europar Batasuna (EB24)	1	1	1
Gainerako Europar Batasuna (Bulgaria, Errumania eta Kroazia)	2	2	2
Ekialdeko Europako gainerako herrialdeak	3	3	3
Magreb	4	4	4
Saharaz hegoaldeko Afrika	5	5	5
Latinoamerika	6	6	6
Estatu Batuak eta Kanada	7	7	7
Asia	8	8	8
Ozeania	9	9	9
Bestelako jatorriak	10	10	10
Ed/Ee	0	0	0

25. Txartel hau erabilita (3. txartela ERAKUTSI), esan iezadazu **zenbateraino zauden ados edo ez** esaldi horietan adierazten denarekin (1= erabat ados; 2= ados; 3= ez ados ez kontra; 4= kontra; 5= erabat kontra):

	EA	A	E A E K	K	EK	ED/EE
a) Etorkinak iristeak euskararen garapena geldiaraziko du	1	2	3	4	5	0
b) Gaur egun euskara nagusi den eremuetan euskaraz gutxiago hitz egingo da etorkinak iristearen ondorioz	1	2	3	4	5	0
c) Immigranteak etortzeak euskal nortasuna galtzea ekarriko du	1	2	3	4	5	0
d) Immigranteak etortzeak geldiarazi egingo ditu abertzaletasunaren helburuak	1	2	3	4	5	0

26. **Atzerritar jatorriko pertsonak** nolakoak iruditzen zaizkizu, **Euskadikoekin alderatuta** (banan-banan IRAKURRI)?

	Gehiago	Berdin	Gutxiago	Ed/Ee
a) adeitsuak	1	2	3	0
b) langileak	1	2	3	0
c) matxistak	1	2	3	0
d) zintzoak	1	2	3	0

27. Gaia aldatuko dugu. Pertsonalki **zein 3 arazok ukitzen zaituzte gehien?** (Gehienez ere 3 erantzun: bat-bateko erantzuna)

	1º	2º	3º
Langabezia	1	1	1
Herritarren segurtasun eza	2	2	2
Osasuna, osasun-sistema	3	3	3
Etxebizitza	4	4	4
Arazo ekonomikoak	5	5	5
Enpleguarekin lotutako arazoak (prekarietatea, soldata txikiak)	6	6	6
Korruptzioa eta iruzurra	7	7	7
Pentsioak	8	8	8

	1º	2º	3º
Politikariak, alderdi politikoak, gobernua	9	9	9
Arazo sozialak	10	10	10
Immigrazioa	11	11	11
Emakumeen aurkako indarkeria	12	12	12
Hezkuntza	13	13	13
Diskriminazioa	14	14	14
Beste erantzun batzuk	15	15	15
Bat ere ez	16	16	16
Ed/Ede	0	0	0

28. Orokorrean hartuta, zure ustez, atzerriko pertsonak etortzeak, ondorio positiboak edo negatiboak eragiten dizkio euskal gizarteari? (erakutsi 9. txartela) Puntua ezazu, mesedez, 0tik (oso ondorio negatiboak) 10era (oso ondorio positiboak).

Negatiboak									Positiboak		Ed/Ee
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99

29. **Islamarekiko** sentimenduari dagokionez, EAeko gizarteak, zure ustez, zer sentimendu erakusten du 0tik (erabateko mesfidantza) 10erako (erabateko konfiantza) eskalan?

Erabateko mesfidantza						Erabateko konfiantza				Ed/Ee	
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99

30. Eta immigrazioarekiko **tolerantzia-eskala** batean, zer lekutan jarriko zenuke zeure burua, 0 "gutziz intolerantea" baldin bada eta 10 "oso tolerantea" baldin bada?

Gutziz intolerantea						Oso tolerantea				Ed/Ee	
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99

31. Eta zein lekutan jarriko zenuke **euskal gizartea**, 0 "gutziz intolerantea" baldin bada eta 10 "oso tolerantea" baldin bada?

Gutziz intolerantea						Oso tolerantea				Ed/Ee	
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99

32. Oro har, nolakoak zarena esango zenuke: **pesimista edo optimista?** 0tik 10era bitarteko eskalan (0 pesimista da, eta 10, berriz, optimista), non kokatuko zenuke zeure burua?

Pesimista						Optimista				Ed/Ee	
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99

33. Epe ertain eta luzera, zure **etorkizuneko itxaropen pertsonalak** onak edo txarrak direla esango zenuke? 0tik (aurreikuspen oso txarrak) 10era (bikainak) bitarteko eskala batean, non kokatuko zenuke zeure burua?

Oso txarrak						Bikainak				Ed/Ee	
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99

34. Zure **auzoko errealtate soziala** laburki azaldu behar bazenu aniztasun etnikoa edo arraza-aniztasuna aintzat hartuz, zer esango zenuke? 0tik 10era bitarteko eskala batean (0k esan nahi du zure bizilagun gehienak EAEn edo Espainian jaiotako direla, eta 10ek esan nahi du atzerrian jaiotako jende asko dagoela), non kokatuko zenuke zeure auzoa?

Hemengoak						Immigranteak				Ed/Ee	
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99



**35.** Pentsatu zure lanegun arrunt batean, jaikitzen zarenetik oheratzen zaren arte; zure ustez, jatorri atzerritarreko zenbat pertsonekin duzu harremana **zeure etxean, zure gurasoenean edo zure lagunenean**? Ez naiz ari kalean ikusten dituzunei buruz, ez eta harremana beste leku batzuetan duzunei buruz ere.

--	--	--

**36.** Eta egun arrunt baten buruan, zure ustez, jatorri atzerritarreko zenbat pertsonekin duzu **harremana beste leku batzuetan**? Ez dut esan nahi zenbat ikusten dituzun kalean, baizik eta zenbatekin izaten duzun nolabaiteko harremana lantokian, banketxean, dendetan, garraibide publikoetan, kioskoan, tabernetan edo kafetegietan eta abarretan.

--	--	--

**37.** Zure udalerrian edo auzoan, zenbatean behin izaten duzu **harremana eta/edo zenbatean behin ibiltzen zara aisialdian** beste herrialde batzuetako jendearekin, atzerritarrekin (ez euskal herritarrekin eta ez espainiarrekin)? (IRAKURRI aukerak)

Inoiz ere ez	1
Zenbaitetan	2
Askotan	3
Sarri-sarri	4
Etengabe	5
Ed/Ede	0

**38. Etorकिन seme-alabak**, hemen, Euskadin jaiotakoak, euskalduntzat har daitezkeela uste al duzu?

Bai	1
Ez	2
Ed/Ee	0

**39.** Pertsona horiek aipatuta, aita eta/edo ama atzerritarra izan arren Euskadin jaiotakoak izanik, etorkizunean, hamabost edo hogeit hamar urte barru, zure iritziz gizarteak **arazoak** izan al ditzake atzerritar jatorriko kolektiboren batekin?

Ez, seguru ezetz	1
Ez, ez dut uste	2
Agian bai, agian ez, ikusi egin behar	3
Bai, baliteke	4
Bai, seguru arazoak sortuko direla	5
Ed/Ee	0

**40.** Txartel hau erabilia (3. txartela ERAKUTSI), esan iezadazu **zenbateraino zauden ados edo ez** esaldi horietan adierazten denarekin (1= erabat ados; 2= ados; 3= ez ados ez kontra; 4= kontra; 5= erabat kontra):

	EA	A	EA EK	K	EK	ED/EE
a) Erakundeek bidaidetik gabeko adingabe eta gazte atzerritarren eskubideak bermatu behar dituzte.	1	2	3	4	5	0
b) Bidaidetik gabeko adingabe eta gazte atzerritarrek etortzeak herritarren segurtasuna kalteztzen du.	1	2	3	4	5	0

	EA	A	EA EK	K	EK	ED/EE
c) Bidaidetik gabeko adingabe eta gazte atzerritarrek arazo gehiago dituzte lana aurkitzeko gainerako gazteek baino.	1	2	3	4	5	0
d) Erakundeek gehiegi babesten dituzte bidaidetik gabeko adingabe eta gazte atzerritarrek.	1	2	3	4	5	0
e) Gizarte gisa, bitarteko guztiak jarri behar ditugu familia-bidaidetik gabeko adingabe eta gazte atzerritarrek gizarteratzeko.	1	2	3	4	5	0

**41.** Etorकिन taldeei buruz hitz egitea zaila bada ere, zure ustez zein da atzerritar jatorriko kolektibo hauen integrazio-maila 0tik (batere integratu gabe) 10era (erabat integratuta) bitarteko eskala batean?

	Batere integratu gabe										Ed/Ee	
	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9		10
a) Mendebaldeko Europar Batasuna	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
b) Errumania	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
c) Brasil	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
d) Afrika beltza, Saharaz hegoaldekoa	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
e) Bolivia	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
f) Maroko, Aljeria, Magreb	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
g) Ameriketako Estatu Batuak	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
h) Kolonbia, Ekuador, Peru	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
i) Argentina	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
j) Pakistan, Nepal, Bangladesh	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
k) Txina	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
l) Paraguai	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
m) Nikaragua, Honduras, Guatemala (Ertamerika)	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99

**42.** Txartel honetan aipatzen diren **zurrumurrueetatik**, zein da, zure ustez, zure udalerrian edo auzoan gehien zabaldua dagoena? Eta bigarrenik? Eta hirugarrenik? (ERAKUTSI 12. txartela).

	1º	2º	3º
Ezin dugu etorkin gehiago onartu; gehiegi dira	1	1	1
Etorकिनak gizarte-laguntzei esker bizi dira eta neurritz kanpo erabiltzen dituzte	2	2	2
Etorकिनek lana kentzen digute	3	3	3
Immigrazioak matxismoa eta genero-indarkeria areagotzen ditu	4	4	4
Etorकिनek ez dute hemen gizarteratu nahi	5	5	5
Etorकिनek neurritz kanpo erabiltzen dute EAEko osasun-sistema eta kolapsatu egiten dituzte larrialdi-zerbitzuak	6	6	6
Ikasle etorkinek jaitzi egiten dute eskoletako hezkuntza-maila	7	7	7
Etorकिनek babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) eskuratzeko dituzte	8	8	8
Immigrazioak delinkuentzia areagotzen du	9	9	9
Atzerriko dendariak ez dute zergarik ordaintzen	10	10	10
Etorकिनek ez dituzte arauak betetzen eta ez dute gizalegez jokatzeko	11	11	11
Etorकिनek espazio publikoak hartzen dituzte, neurritz kanpo eta gaizki erabiltzen dituzte	12	12	12
Ed/Ee	0	0	0

43. Txartel hau erabilia (3. txartela ERAKUTSI), esan, mesedez, **ados zauden ala ez** honako adierazpen hauekin (1= erabat ados; 2= ados; 3 = ez ados ez kontra; 4 = kontra; 5 =erabat kontra; 6 = ez daki/ez du erantzuten):

	EA	A	EA EK	K	EK	ED EE
a) Emakume etorkinei esker, bestela hutsik geratzen diren lanpostuak betetzen dira	1	2	3	4	5	0
b) Emakume etorkinek gure ekonomia hobetzen laguntzen dute	1	2	3	4	5	0
c) Emakume etorkinek, emakume etorkin izateagatik, lan-baldintza okerragoak izaten dituzte	1	2	3	4	5	0
d) Emakume etorkinek euskal gizartean lana eta familia uztartzen laguntzen dute	1	2	3	4	5	0
e) Gaur egun, emakume etorkinak funtsezkoak dira zainketa-lanetan	1	2	3	4	5	0
f) Emakume etorkin musulmanek zailtasun handiagoak izaten dituzte laneratzeko	1	2	3	4	5	0
g) Emakume etorkinek indarkeria matxista handiagoa jasaten dute	1	2	3	4	5	0
h) Emakume etorkinen gizarte-ekarpena oso garrantzitsua da Euskadin	1	2	3	4	5	0

44. Oro har, zure ustez, **jatorri atzerritarreko emakumeak** nolakoak dira? (IRAKURRI ezaugarri-bikoteak)

	+	=	+	
Atseginak	1	2	3	Antipatikoak
Langileak	1	2	3	Alferrak
Arduratsuak	1	2	3	Ganorabakoak
Feministak	1	2	3	Matxistak
Zintzoak	1	2	3	Gezurtiak
Interesatuak	3	2	1	Altruistak
Trebeak	1	2	3	Ezgaiak
Ezjakinak	3	2	1	Prestatuak
Fededunak	3	2	1	Ateoak
Otzanak	3	2	1	Ahaldunduak

45. Oro har, zure ustez, **jatorri atzerritarreko emakumeen** etorrerak eragin positiboa ala negatiboa du euskal gizartean? Eman, mesedez, puntuazio bat 0tik (oso eragin negatiboa) 10era (oso eragin positiboa) bitartean.

Negatiboak										Positiboak										Ed/Ee
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	99

**MILA ESKER ZURE LAGUNTZAGATIK**

A. Inkesta bete duen pertsonaren **sexua**

Gizonezkoa	1
Emakumezkoa	2
Beste bat	3

B. Esango didazu zenbat **urte** bete dituzun azken urtebetetzean?

C. **Habitat:**

5.000 biztanle edo gutxiago	1
5.001 - 20.000 biztanle	2
20.001 - 150.000 biztanle	3
Hiriburua	4
Ed/Ede	0

D. **Euskara** badakizu?

Bai	1
Ez	2
Ed/Ede	0

E. Esango didazu amaitu duzun **ikasketa-maila** gorena zein den?

Ikasketarik ez, oinarrizko ikasketak edo OHO bukatu gabe	1
Lehen mailako ikasketak: OHO, oinarrizko batxilergoa, LH I	2
Bigarren mailako ikasketak: UBI, BBB, goi-mailako batxilergoa, LH II	3
Unibertsitate-ikasketa ertainak: diplomatura	4
Goi-mailako unibertsitate-ikasketak	5
Ed/Ede	0

F. **Erljiioaren arloan**, nola definitzen duzu zure burua?:

Katoliko elizkoia	1
Katoliko ez-elizkoia	2
Beste erlijio bat	3
Agnostikoa, ateo, neutroa	4
Ed/Ede	0

G. Esango zenidake, mesedez, zure etxean hilean, gutxi gorabehera, zenbateko **sarrera garbia** izaten duzuen, kontzeptu guztiak kontuan hartuta? Erreparatu, ez dizudala kopuru zehatza eskatzen, kopurutarte hauetako bat aukeratu behar baituzu (erakutsi 13. txartela):

1.000 € baino gutxiago (166.000 pezeta inguru)	1
1.001 eta 1.800 € artean (166.000 eta 300.000 pezeta artean.)	2
1.801 eta 2.500 € artean (300.000 eta 415.000 pezeta artean)	3
2.500 € baino gehiago (415.000 pezeta baino gehiago)	4
Ed/Ede	0

H. Oro har, zenbateraino zaude gustura zure etxeko **egoera ekonomikoarekin**? Mesedez, adierazi 0tik 10era bitarteko eskala batean, non 0 erabat ase-gabea den eta 10 erabat gustura.

Erabat asegabea										Erabat gustura										Ed/Ee
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	99

I. **Ekonomia-jarduerari** dagokionez, zein da egoera une honetan?

Lanean, autonomia edo soldatapekoa	1	<b>J galdera:</b> Zein izan da edo da lanbidea edo jarduera?
Erretiratu, pentsionista, errentaduna	2	
Langabezian, lan bila	3	
Etxekoandrea	4	<b>J galdera:</b> Zure etxean diru-sarrera handien duen pertsonaren lanbidea edo jarduera zein da? eta K galderako ikasketak?
Ikaslea	5	
Ed/Ede	0	<b>J galdera:</b> 0

JG: LANA EDO LANBIDEA	Oraingo lanbidea	Aurreko lanbidea
<b>BERE KONTURAKO LANGILEA</b>		
1. L. Nekazaria, abeltzaina ustiategi txikian (1 soldatapeko finko baino ez)	1	1
2. L. Nekazaria, abeltzaina ustiategi handian (soldatapeko finkoak izan ditzake ala ez)	2	2
3. L. Autonomoa (langilerik gabe)	3	3
4. L. Negozio txikiaren enpresaburua (1 eta 5 langile finko edo bitartekoren artean)	4	4
5. L. Negozio handiaren enpresaburua (6 langile finko edo bitarteko ala gehiago)	5	5
6. L. Norberaren konturako profesionala soldatapekorik gabe edo 6 soldatapeko baino gutxiagorekin (profesional hauek beren jarduera garatzeko maila ertaineko edo goi-mailako titulazioarekin onetsitako kalifikazioa behar dute: OLT, aparejadore, medikua, abokatua, arkitektoa, etab.)	6	6
<b>BESTE BATEN KONTURAKO LANGILEA (sektore pribatua edo publikoa):</b>		
7. L. 6 mendeko baino gutxiago dituen arduraduna	7	7
8. L. 6 edo mendeko gehiago dituen arduraduna	8	8
9. L. Soldatapeko profesionala (jarduera garatzeko maila ertaineko edo goi-mailako titularekin onetsitako kalifikazioa behar dute: OLT, aparejadore, medikoa, abokatua, arkitektoa, irakaslea, maisua, etab.)	9	9
10. L. Bitarteko agintea (saileko burua, ataleko burua, negoziatuko burua, langileburua, arduraduna, etab.)	10	10
11. L. Nagusiki bulegoan diharduten beste langile batzuk (ez-profesionalak, ez zuzendariak, ez bitarteko aginteak: Idazkariak, laguntzaileak, kontulariak)	11	11
12. L. Beste langile batzuk nagusiki lana bulegoaz kanpo dutenak (saltzaileak, ordezkariak, zerbitzariak, banatzaileak, postariak, etab.)	12	12
13. L. Eskuz lan egiten duen langile trebatua (ikasi edo lanbide-heziketa praktikoa izan du bete lanbideari begira: tailer-maisuak, tailerreko ofizialak, etab.)	13	13
14. L. Eskuz lan egiten duen langile trebatu gabea (peoiak, prestatu gabeko langileak)	14	14
<b>EZ DUTE LANIK EGITEN</b>		
15. L. Erretiratu / Pentsioduna / Errenta-hartzailea eta lan egiten ez duten beste batzuk	15	
16. L. Langabea (3 hilabete baino gehiago langabezia)	16	
Langabea (3 hilabete baino gutxiago langabezia)	17	
<b>ZEIN ZEN PERTSONA HORREN AZKEN LANA EDO LANBIDEA?</b> ( <b>Idatzi eta sailkatu aurreko lanbideren batean eta, horretarako, erabili 2. zutabea</b> )		

**K. BAKARRIK etxeoandreak / etxeo gizonak eta ikasleak:** Zer ikasketamaila du zure etxean diru-sarreraren handien duen pertsonak?

Ikasketarik ez, oinarritzko ikasketak edo OHO bukatu gabe	1
Lehen mailako ikasketak: OHO, oinarritzko batxilergoa, LH I	2
Bigarren mailako ikasketak: UBI, BBB, goi-mailako batxilergoa, LH II	3
Unibertsitate-ikaseta ertainak: diplomatura	4
Goi-mailako unibertsitate-ikasketak	5
Ed/Ede	0

L. Politikari buruz hitz egiten denean, normalean, **ezkerra eta eskuina** hitzak erabiltzen dira. Txartel honetan (14. TXARTELA), zenbait lauki ageri dira, ezker muturretik (0) eskuin muturrera (10) sailkatuta. Zein laukitan kokatuko zenuke zure burua?

Ezker muturra											Eskuin muturra		Ed/Ee
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10			99

M. Politikari buruz ari garela, Euskadiri eta euskalgintzari erreferentzia egiten diogunean, askotan, **espainolismoaz** (nazionalismo espainiarra) eta **euskal nazionalismoaz** hitz egiten da. Esango zenidake, mesedez, non kokatuko zenukeen zure burua 0tik (gehienezko euskal nazionalismoa) 10era (gehienezko espainolismoa) bitarteko eskala honetan?

Euskal nazionalismoa											Espainolismoa		Ed/Ee
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10			99

N. Jarraian dituzun esaldi horietatik, zein esaldik adierazten ditu ondoen zure **sentimenduak?** (guztiak IRAKURRI)

Espainola bakarrik sentitzen naiz	1
Euskalduna baino espainolagoa sentitzen naiz	2
Euskaldun bezain espainol sentitzen naiz	3
Espainola baino euskaldunagoa sentitzen naiz	4
Euskalduna bakarrik sentitzen naiz	5
Ed/Ede	0

Izena: \_\_\_\_\_

Telefona: \_\_\_\_\_

Udalerrria: \_\_\_\_\_

**ADIERAZI DATU HORIEK ELKARRIZKETA BENETAN EGIN DELA EGIAZTATZEKO ESKATU ZAIZKIOLA.**